

Goierri tarra

332. zenbakia 2007ko abenduak 18

Koke Lasa

6x8.000



TRUK

moda eta osagarriak

Nafarroa etorbidea, 31
Beasain Gipuzkoa
T 943883545

REKOLTE

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
 A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
 ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

GABON ABESTIEN BILDUMA BERRITUA HITZAREKIN



Goierriko ahozko tradizioetik jasotako gabon kanten liburuxka osatu du HITZAK, abesti berriagoekin batera

Urtearen bukaerako festa egunetarako Goierriko Hitzak gabon kanten bilduma prestatu du. Iaz abiatutako ekimenari segimena emanez, bigarren aldiz aterako da berrituta, osatuta, Goierriko kaleetara, etxeetara, pertsonengana.

Antzinako kulturadierazpide bizia dira

Eguberrietako abestiak gaur egun oraindik, ohitura zaharra berritzeko bitarteko. Euskaldunek mendez mende, jatorri ezezagunetik hasitako musika eta kantagintza kultura, baita kristautasun aurreko sinismenen gordailu direnak ere.

Iaz harpidedunen eta irakurleen artean ja-

so zuen harrera beroa eta eskergarriari erantzuteko, bigarren liburuxka honetan kantu berriak aurkitu ahalko dira, Goierriko herrietan urte zahararen eta berriaren zubi-egunetan kantatzen direnak edo abestu izan direnak. Etxez etxe, mahaiaren inguruan, lagun artean.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

Urbialde plaza, 7 - behe

BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Idurre Eskisabel Larrañaga.

6. Ingurugiro txokoa: Planeta aldatzeko ideia sinpleak (II).

8. Euskara txukuntzen: Denetik (V).

10. Aholkua: Ahoko inplanteak.

12. Elkarrizketa: Koke Lasa.

26. Erreportajea: Sahararako janari bilketa.

30. Elkarrizketa: Indarren iragana eta geroa.

36. Erreportajea: Haurren minbizia.

40. Gazteleku: Ander Argai errugbilaria.

44. Garai batean...: Sastarri Lan Taldearen lehenengo DVDa.

48. Non zer.

52. Iragarki laburrak.

54. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Idurre Eskisabel
Larrañaga

Pixka bat

Pixka bat es mucho esan eta esan ari zaigu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza euskararen erabilera bultzatzeko kanpainan. Aitortuko dizuet: “betiko epelkeria” pentsatu dut lehen bote prontoan, *Ukan birusaren* lelo berria aurrenekoz entzun dudanean.

Lasterrera, Amaiarekin gogoratu naiz: zortzi abizen euskalduneko familia erdaldunean jaio eta, halaber, inguru erdaldunean hazitako lagunarekin. Orain gutxi arte, inoiz ez du izan euskararen beharrik, ez eta arazo identitario handirik. Horretaz asko pentsatu ez badu ere, euskalduntzat dauka bere burua -beharbada baita espainiartzat ere, baina horri buruz ez dugu inoiz hitzegin-, abizenengatik ez ezik, ustez egiteko eta bizitzeko modu zehatz batzuen jabe den talde bateko kide sentitzen delako: seriotasuna eta lana maite ditu, baina *poteoari* eta *kuadrilari* uko egin gabe. Bizimodu on eta eroso atsegin du baina gehiegikeria eta harrokeriarik gabe. Paisaia berde eta menditsuen beharra sentitzen du lasai bizitzeko. Umeari *txiki* esaten dio, mokadutxoari *pintxo*, eta bihotzean zerbait sentitzen du *txuri-urdin maitea* entzutean.

Orain gutxi, ordea, zerbait piztu da Amaiaren barruan: Oier semeak behin eta berriz eskatzen dio Pirritx eta Porrotxen DVDa jartzeko, eta berak ezin *txikia* algara batean jartzen duten pailazoen kantuak ulertu. Pena horrek eraman du euskaltegian hastera, eta hizkuntzak ikasteko batere iaioa ez den arren lehen urrasteiko aurreneko pausoak ematera. Kosta egiten zaio, baina bai, Amaiarentzat *pixka bat es mucho*.

Mariarekin gogoratu naiz hurrena, bizimodu hobe baten bila Errumaniatik

erabat euskalduna den herri txiki batera etorritako neska gaztearekin. Trenean alboan eseri zait, eta “barkatu” esan dit euskaraz poltsa handia nire ondoan utziko duela adierazteko. *Pixka bat es muchísimo!*

Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ez ezik, Soziolinguistika Klusterrak ere pixka bat esan berri digu. *Pixka bat* lehor eta kezkatua, *es mucho* makulurik gabekoa. Alegia, euskararen kale erabilerak pixka bat, %3,7, egin duela gora duela 17 urte lehen neurketa egin zenetik. Egun, kalean entzuten ditugun ehun elkarrizketatik 14 besterik ez dira euskaraz. Pixka bat, oso gutxi ez esatearren...

Orduan, Durangoko Azokan aurreneko liburua plazaratu duen bertsolari gazte, jator, transgresore eta iraultzailearekin akordatu naiz. Azokako *best seller* erdara ederrean idatzi duen horrekin. *A las ocho en el Bule* izenburu guayarekin kale borrokaren kronika ekarri digunarekin. Berez, naturalki, gaztelera, atera zaiolako idatzi omen du erdaraz. Pentsatu ote du zer ote liratekeen euskal letrak Txillardegik, Saizarbitoriak eta beste hainbat eta hainbatek berezko joera horri jarraitu izan balie? Areago, azaldu du gaztelera zela 90eko amaieran Donostiako kale borroka giroko hizkuntza, hiruburu euskalduneneko ustez inguru euskaldunenean. Hori bai, egiantzekotasunaren mesedetan-edo euskarazko esaldi eta hitzekin ziprztindu du testua. *Pixka bat... no es nada*.

Eta artikulu hau bukatzen ari naizela, abenduaren 7an ostiralez, Euskal Herriko gaztetxoan heroi den Harry Potterren filma ematen ari dira ETBn. Euskararen ezagutza gehien zabaldua dagoen adin tartekontzako produktua. Jarrerak eta atxikimenduak landuz gero erabilera estatistikak iraul ditzakeen belaunaldiari zuzendutakoa. *Pixka bat es mucho* esaten ari zaigun Jaurlaritzako Kultura Sail horren aurrekontuko zatirik handiena baliatzen duen telebista publikoan. ETB2an, gaztelera hutsez. *Pixka bat* ere ez; adar jotzea besterik ez.

**Egun, kalean entzuten ditugun ehun
elkarrizketatik 14 besterik ez dira euskaraz.
Pixka bat, oso gutxi ez esatearren...**

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI
 Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 420/01
 AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen,
 umeen,
 bikoteen eta
 sexologi
 tratamenduak

LEIAR

LEIAR

KRISTALDEGIA
 ERAKUSKETA:
 Ezkiaga Pasealekua 2/g
 ☎ 943 88 88 24
 BILTEGIA:
 Salbatore Industrialdea
 ☎ 943 88 60 70
 BEASAIN



MIRENTXU

*Gabon
zoriontsuak
denoi!*

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA



Kale Nagusia, 1 Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 14 57 ☎ 943 88 04 55
BEASAIN

**MONT
BLANC**

GABONETAN:

- JAIOTZAK
- GABONETAKO
APAINGARRIAK
- OPARIAK



ALTAMIR
JATETXEA
A A A

Altamiran sukaldaritza maite dugu.
Gure plateren barne muina sasoiko
lehengaiak ardura bereziz elkartzean
datza...

hau, kontzeptu eta sentsazio berriak
ezagutu ditzazun egiten dugu...
zuk eta zure dastamenak hamaika
zapora eta ukituz goza dezazuen.

★
zorionak
urteberri on

Altamirako kirolgunea
20240 Ordizia Gipuzkoa
T 685 794 755
altamira@igeri.net



#EKTONE

Planeta aldatzeko ideia sinpleak (eta II)

14. Plastikozko poltsak

Erosketak egitera joaten garenean, ez ahaztu zure poltsa, saski edo karroa eramatea. Plastikozko poltsek ingurumen kostu handiegia suposatzen dute dendatik etxerako bidea soilik egiteko.

15. Produktu ekologikoen alde egin

Produktu ekologikoak nekazal eta abeltzantza ingurune estentsiboetatik eratoritzen dira, eta ez dituzte produktu edota pestizida kimiko sintetikoak erabiltzen hauen ekoizpena handitze-ko.

16. Arrainei errespetua

Arrandegian arrainen etiketa bereizgarria irakurri. Geroz eta selektiboago, orduan eta iraungarriagoa izango da. Hobe amuz arrantzatzea sareak erabiliz baino. Eta gogoratu: gutxieneko neurri bat eduki behar dute.

17. Gertutasuna

Ahal baldin bada, erosi gertuko produktuak, denda edo merkatura iristeko desplazamendu gutxiago behar izan duelako, eta ondorioz, energia gastu txikiagoa izango zuen. Denda txikiak babestu, herrietako betiko kontsumo kulturaren oinarri baitira.

18. Txorrotako ura

Pentsatu ondo ea merezi duen botilako ura erosi edo txorrotekoa edaterik dagoen. Botilakoak energia gastua handiagotzeaz gain, etorkizunean hondakina sortuko du.

19. Alerta: transgenikoak

Ekologisten etsai nagusienetako bat transgenikoak dira. Hauek ez kontsumitzea gomendatzen dute, batik bat, oraindik hauek osasunean eta ingurunean eragin ditzaketen kalteak ondo ikertu gabe daudelako. Transgenikoen presentzia etiketa bidez adierazita egon behar du.

20. "Fast-fashion" deritzonari mugak jarri

"Fast-food" mugimenduarekin oso kritikoak gara, ba egin dezagun berdina "fast-fashionarekin" (moda azkarrak), hau urtetik urtera irauten duten jantzieta oinarritzen baita. Ekologia aldetik hau jasangaitza da. Gauzei bigarren aukera bat eman.

21. Egur jasagarri gehiago

Egurra izatez oso gai ekologikoa da, baina izen exotikoa badu, munduko azken oihanetatik etor daitekeela pentsa daiteke. Erosi nahi dugun produktua esplorazio jasagarri batetatik datorrela konprobatzeko, FSC (Forest Stewardship Council) zigilua duen egurra eskatzea da hoberena.

22. Paper birziklatua

Paperdendan, karpeta, libreta, koaderno edo folioak bezalako produktuan erostera, aukeratu paper birziklatuz eginak daudenak eta kloroz zuritu gabe.

23. Lanaren duintasuna

Lagundu kalitatez eta duintasunez eginikoa mantentzen. Ekidin urrutiko fabriketan masiboki sortutako produkzioak, batez ere langileen eskubideak urratzen diren herrialdeetan sortutakoak.

24. Biztanle bat, hazi bat

Alda ezazu zuhaitz bat. Espezie autoktonoa bada hobe. Zuhaitzaren hazkuntzaz gozatzeaz gain, paisaia hobetu eta desertifikazioa ekidindo duzu. Zuhaitz bakar batek bere bizitzan zehar tona bat CO2 xurgatzen du.

25. Naturaren aurkako ekintzak salatu

Enpresa edo instalazio baten errekak edo ibaiak kutsatzen baditu, gorpilak edo sasiak erretzen ikusten baduzu, salatu. Kontrol gabeko zaborteak, pozoia erabilerak, legez kanpoko burdinariak, legez kanpoko proiektu urbanistikoak, eta abar.

26. Perretxikuetaz

Perretxikuak biltzen ditugunean, ez sustraitik tirarik egin, labana batekin moztu ezazu. Saski bat eraman, plastiko poltsaren orde, esporak zuloetatik eror daitezkeen.

JAKIN BEHARREKOAK

**Mikel Mintegi, Foru Al-
dundiko ingurugiroko
diputatuak** esan duenez, Bastidan (Araba), egin nahi den golf zelaia, eta bera ordaintzeko 750 etxebizitzaren eraikuntza, orain dagoen bezala antolatua ezin du onartu. Golf zelaiak ZEPA eta LIC izendatutako Natura Sareko lurrak hartuko lituzke.

**Debako Praileaitzen in-
guruko harrobia** geratzea eskatu dute Eusko Legebiltzarrean EAJ izan ezik beste alderdi guztiek, azterna-
tegia babesteko. Eusko Jaularitzaren ustez, santutegiak eta labarretako arteak ez du inongo arriskurik. Aranzadi Elkartek eta Praileaitzen Lagunak Elkar-
teak, ordea, aurkako iritzia azaldu dute, PSE, PP, EHAK, Aralar eta EAK be-
raiekin bat egin dutelarik.

WEBGUNEAK

**Urrats ekologikoa zein
den jakiteko weba.** 15 galdera erraz erantzun ondoren arrasto ekologikoa beste batzuekin alderatu ahalko duzu. Baita planeta honek duen gaitasun ekologiko erabilgarria ere. www.earthday.net/foot-print/info.asp

AHT Gelditu Elkarlanak Euskal Herriko abiadura handiko trenaren inguruko webgunea osatu du. Bertan albisteak, aurka egote-
ko arrazoiak, ekitaldiak eta abar aurki ditzakegu. Hego Euskal Herrian egingo duen ibilbidearen fitxategia ere aurki dezakegu. www.ahtgelditu.org



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Goierri kalea

Tel.: 943 16 40 48 · Faxe: 943 16 47 03

20240 ORDIZIA

MEDIKU KOADROA

FAMILIAKO MEDIKUNTZA • Natasa Vujic Dr. • Mikel Ansa Dr. • Jorge Sampedro Dr.	TRAUMATOLOGIA • Ines Burutaran Dr. • Jesus M^a Caminos Dr.	PSIKOLOGIA • Montse Corghete
BARNEKO MEDIKUNTZA • Javier Legarda Dr. • Begoña Iñurrategi Dr.	ERREHABILITAZIOA • Vanessa Bahon Dr. • Laida Artola Dr.	DIETETIKA ETA NUTRIZIOA • Cristina Perez
NEUROLOGIA • Juan Carlos Martin Dr.	UROLOGIA • Dámaso Sanchez Dr.	PODOLOGIA • Ioana Arbillaga
ALERKOLOGIA • Maria Mar Del Castillo Dr.	GINEKOLOGIA • Iruna Alzola Dr. • Emilio San Pedro Dr.	FISIOTERAPEUTAK • Eider Iturrospe • Ainhoa Cupido
DERMATOLOGIA • Conchi Tamayo Dr.	ORL (sudur, eztarri, belarri) • Luis Mutio Dr. • Julio Igartua Dr.	ERIZAINZAN DIPL. (ATS) • Marivi Beriain • Arantzazu Balerdi
PEDIATRIA • Juan Jose Idoeta Dr. • Adolfo Romano Dr. • Marcela Pérez Dr.	OFTAMOLOGIA (begiak) • Mertxe Zabaleta Dr. • Alejandro Amias Dr.	ODOL eta PIXA ANALISIAK HORTZETAKO ERRADIOGRAFIAK ERRADIOGRAFIA OROKORRAK
PSIKIATRIA • Loudes Del Campo Dr.	KIRURGIA OROKORRA • Juan Kerejeta Dr.	EKOGRAFIK (3D eta 4D) MAMOGRAFIK
KARDIOLOGIA • Alberto Izagirre Dr.	ENPRESEN AZTERKETA MEDIKUAK	GIDATZEKO ETA ARMENTZAKO AZTERKETA MEDIKUAK

Hitzordua aldez aurretik
943 16 40 48

Denetik (V)

Maizpide
euskaltegia

Gaurko menuak ere denetik izango du. Ea baliagarria den!

Atentzioa 'deitu'?

Erdarakadei buruz hamaika aldiz idatzi dugu txoko hone-tan eta gaurko hau ere, tamalez, multzo horretakoa da. Gaztelaniazko "llamar la atención" guztiak modu batera edo bestera esango ditugu euskaraz, baina inoiz ez izen-buruan agertzen den moduan!

● Atentzioa eman

- ✓ Manoliren gona motzak **atentzioa eman** zidan (zuzen).
(Edo: Manoliren gona motza **deigarria gertatu, egin** zitzaidan)
- ✓ Manoliren gona motzak **atentzioa deitu** zidan (oker).

● Demanda egin

- ✓ Apaizak **demanda egin** zion Manoliri, borrelako gona eramateagatik (zuzen).
- ✓ Apaizak **atentzioa deitu** zion Manoliri, borrelako gona eramateagatik (oker).

● Nabarmendu

- ✓ Manoliri izugarri gustatzen zaio jaiegunetan **nabarmentzea** (zuzen).
- ✓ Manoliri izugarri gustatzen zaio jaiegunetan **atentzioa deitzea** (oker).

Autoz / autoan

Ez ote ditugu 'nahasten'?

Autoz: leku batetik bestera joateko zein garraiobide erabiltzen den adierazteko. **Nola** galderari erantzuten dio.

- ✓ Bartzelonara **autobusez** joateko modurik ez bada, **autoz** joan beharko dugu, bada!

Autoan: norbaiten ibilgailuan joango garela adierazteko.

- ✓ Autoz joatekotan, Gurutzeren **autoan** joango gara, eta ez Aitzolenean.

Oharra: ibilgailu hori izendatzeko kalean gehien erabiltzen dugun hitza, 'kotxe' hitza alegia, ez da egokia euskarra batuan (autoa edo beribila esan behar da). Halere, bagoia, zalgurdia edo 'haurrak eramatekoa' (Hegoaldean) izendatzeko balio du 'kotxe' hitzak.

Nire, hire, zure / gure, zuen

'Nire' hori (Goierrin 'nere' esaten duguna) behar baino gehiagotan erabiltzen dugu. Batzuetan ez genuke erabili beharko; beste batzuetan, berriz, pluralean erabili beharko genuke!

1. Senidetasuna adierazteko izenekin ez daukagu erabili beharrik!

Nire aitarekin joan naiz basurdeak ehizatzeraz (oker).

Aitarekin joan naiz basurdeak ehizatzeraz (zuzen).

2. Erabiltzekotan, pluralean!

Nire ama gogotik lan egindakoa da (oker).

Zure ama gogotik lan egindakoa da (oker).

Hire ama gogotik lan egindakoa dun/k (oker).

Gure ama gogotik lan egindakoa da (zuzen).

Zuen ama gogotik lan egindakoa da (zuzen).

Zuen ama gogotik lan egindakoa dun/k (zuzen).

Olentzero nire etxera ere etorriko da (oker).

Olentzero gure etxera ere etorriko da (zuzen).

Kaixo, Teodoro naiz !
Goraintziak euskal
herriar guztiei !



Gure Teodorori ere
gustatzen zaiok, motel,
nabarmentzea!

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Nire amarekin egundoko eztabaida izan dut.
2. Luis eta Maite trenean joango omen dira Parisera.
3. Joxe Mariren "montekristoa" deigarria gertatu zitzaidan.
4. "Gran Hermano"ko pertsona batzuei izugarri gustatzen zaie nabarmentzea.

OHARRA: lehenengoa, amarekin behar du; bigarrena, an, trenaz; azken biak zuzenak dira.

"Eguneroko ogia, ogi bereziak
eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 BEASAIN

☎ 943 88 77 58

Elosegi, 14 LAZKAO

☎ 943 88 72 79

Sta. Maria, 19 ORDIZIA

☎ 943 16 00 44



mazda

☎ 943 889 296

Faxa: 943 887 952

N-1 errep. 419 Kma

BEASAIN

Bikar, S. A.



**inprimaketa-sistemen birziklaketa
inprimaketa-hondakinen kudeaketa
inkjet, laser/tonerra
zerbitzu teknikoak**

Andra Mari, 9 behea • 20200 Beasain • 197 Posta kutxa
Tel.: 943 16 17 16 • 660 14 44 94 www.birzikla.net

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



**Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak**

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN

Ahoko inplanteak

AHOLKUA

Inplante bat titaniozko fijasio bat da eta bere helburua galdu den hortz baten zuztarra ordezkatzeko da. Inplantea hezurrean jartzen da eta denborarekin hezurrean eranstean da eta behin honela protesia jartzen da.

Zeintzuk jarri dezakete

Muga nagusia hezur kantitatea izan ohi da. Honetarako beharrezkoa da azterketa pertsonalizatu bat egitea kasu bakoitzari dagokion tratamendua egiteko, adibidez hezurrezko injertoak.

Beste muga garrantzitsua, adina izan ohi da eta baita ere pertsonaren osasuna.

Beste tratamenduekiko abantailak

Zubi bat egiteko kasuan adibidez, ondoko hortzak gastatu egin behar dira, in-

planteekin aldiz ez da ondoko hortzik ikutzen eta endodontzia (hortzaren nerbioa hil) bezalako ondorioak saihestu daitezke.

Aho osoko protesien kasuan aldiz, denborarekin mugitzen hasten dira hezuraren maila gutxitzen joaten delako. Inplanteekin aldiz hezurra mantentzea eta protesia ezertarako ez mugitzea lortzen da. Beti ere hezurra gehiegi gutxitzen utzi gabe, ondorioz tratamendua gogorragoa izango baita.

Konplikazioak

Ohikoa den bezala, beste edozein interbentzio kirurgikoetan bezalaxe, zenbait molestia ager daitezke, baina profesionalaren aholkuak ondo jarraituz gero eraman-garria egiten da.

Sortu daitezkeen konpli-

kazioak inflamazioa, infekzioa eta inplantea galtzea dira. Esan behar da inplantearen galtzea ez dela "retxazoa", (ez baitago titanioari alergia dioten pertsonarik), baina bai tratamenduan zehar arazoak agertu direnaren ondorio; faktore garrantzitsu bezala hartzen direlarik, tabakoa, alkohola, azukre eta garbitasun ez egokiak. Hala ere, argi utzi behar da, tratamenduen % 85-95 inongo arazorik gabe izan ohi direla.

Nola zaindu

Beti bezala, zatirik garrantzitsuena dugu hau. Norberaren hortzak bezalaxe hauek ere zaindu behar dira, horretarako etxean behar bezala garbitu eta espezialistarengana jarraipenak egitera joanez.



Nerea Larrea Oiarbide
Odontologo zirujaua
Beasain

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

274.000 €-tik hasita (BEZ barne)



Lizarraga

www.tdhlizarraga.com

BIZITZA BAKARREKO ETXEAK
ARBIZUN ETA ALTSASUN

948 46 84 54

ARRIETA

JATE TXEA

Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

☎ **943 88 00 02**

OLABERRIA

Eguberri zoriontsuak guztioi!



Zortzimilako 6
mendi igo ditu
ormaiztegiarrak

Koke Lasa: Gure arteko giron onak animatzen nau itzultzera



Aurten 8.000 metroko 2 mendi igo ditu Koke Lasak (Broad Peak eta Shisha Pangma). 1993an Himalaiara joaten hasi zenetik munduko mendirik altuenetako 6 igo ditu ormaiztegiarrak.

Etan ez du horretan geratzeko asmorik, dagoeneko ari da datorren urterako helburuetan pentsatzen. Bitartean, atzera begira jarri eta orain arteko igoeren oroitzapenak errepasatu ditu.

Zeure etxea dekoratzeko biderik laburrena

ibai ondo
barne diseinua
dekorazioa

Garai berrietarako
ideia berriak

Katea 5, Antzizar auzoa
Tel.: 943 16 40 40
BEASAIN

VOLVO



ANZIZAR, S. A.



**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.antzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Nondik datorkizu mendizaletasuna?

Beti gustatu izan zait mendia. Bolada batean, urte klabeetan, txirrindularitzan aritu nintzen. Txirrindularitzan ere gustura nenbilen baina 18 urterekin kokoteraino bukatu nuen. Koadri-lan halako menditara joaten zirenean, nik entrenamendua edo karrera izaten nuen, horrekin dena atzeratu nuen. Berandu samar hasi nintzen Himalaiara joaten. Gaur egun Andeetara edo Alpeetara, edozein momentutan joaten da jendea. Lehen, laguna bilatzea, kosta egiten zen. Orain jendea asko mugitzen da.

1993. urtean igo zenuen lehenengo zortzi milako mendia: Cho Oyu. Nolan animatu zinen?

Alpeetan asko ibiltzen ginen eta gero Andeetan hiru urtean ibili ondorenean, Cho Oyura joateko aukera sortu zen. 'Marron'-ek bazuela baimena baina ezin zuela... Baimen hori zegoe-nez, 'Marron'-ekin elkartu eta gaia mugitzen hasi eta lau lagun elkartu ginen har-untza joateko.

Ez zen gaur egun bezala. Gaur aurretik mendian izan den edozeinekin egoten zara, hau nola den, bestea nola... Orduan ez zen horrelakorik.

Nola gogoratzen duzu lehenengo espedizio hura?

Bost hilabetetan, burubela-ri aritu ginen, hura presta-



Igo duzun mendirik politena?

Itxuraz, estetikaz, Ama Dablam oso polita da. Itxura aldetik, munduko politenetarikoa dela esaten da. Hori gustu kontua da, baina oso-oso polita da. Ez da zortzimilakoa, baina oso polita da. Hidden Peak-ek ere oso itxura polita dauka; Shishako bidea ere oso polita da.

Ametsetako mendia?

Ez daukat, helburu berezi bat ez nuke esango. Ni normalean saiatzen naiz helburutxo bati motibazioa bilatzen. Makalu adibidez, ia 8.500 metro dauzka, eta ez naiz mugitu altuera horretan, eta probatzeko gogoa daukat, esaten baitute zortzi milatik gora salto handia dagoela.

Umetan lehenengo igotako mendia:

Lehenengo irteera, gau pasaz, Kizkitzara egin genuen. Eta ondoren Haizelekura joan ginen. Bi horiek, lehenengo esperientzia bezala, hortxe dauzkat buruan.

Oroitzapenik txarrena daukazun mendia:

Manaslu esango nuke. Nik izozketak izan nituen eta beste espedizio eslobakiar bateko bi kide hil ziren, nire atzetik igo zirenak. Esperientzia gogorra izan zen eta mila buelta ematen dizkiozu bu-ruari.

Etxe ondoko mendirik gogokoena:

Aizkorrin asko gozatzen dut, batez ere elurra dagoenean. Txindoki aldera, entrenatzera joaten naiz, azkar, baina gozatu, Aizkorrin gozatzen dut.

Uda ala negua:

Negurarekin gelditzen naiz kasi.

Mendi tontorrean jateko...

Hemengo mendi tontorra gauza bat da eta hangoa beste bat. Hemen, ogitarteko goxo bat ondo sartzen da; han ez da posible izaten eta han tea esne beroarekin asko estimatzen da.

Oporretako leku bat:

Mendia eta hondartza uztartzen saiatzen gara familian. Mendian suabe-suabe eta hondartza lasaiak.


SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA


Mota guztietako gida-baimenak

Aiña Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

xetai
nafarroa etorbidea 1
20200 beasain gipuzkoa
www.xetai.net



Cho Oyu (8.201 m)



1993

1993ko irailaren 30ean igo zuen Koke Lasak Cho Oyu. Lau lagun joan ziren espedizioan, Rafa Berasategi (Segura), Juanra Garitano (Bergara) eta Bittor Umaran (Galdakao). Koke Lasak bakarrik lortu zuen gailurra. "Cho Oyu, teknikoki ez da mendi konplikatua, baina mendi guztiak bezala da, zein baldintza dauden arabera. Aurten ere oso jende gutxi igo da. Oso erraza da, baina kakotx artean. Oso mendi hotza da, oso luzea. Esaten dute, zortzimilakoen artean, errazena dela, errazik baldin badago."

tzen. Lan handia izan zen. Dirua biltzeko kamisetak atera, txosnak jarri... Ez geneukan alturako materialik, nora joan ez genekin. Bost hilabeteen eromena izan zen, martxa ezagutu arte. Mendiko material berezia, lumazko monoa adibidez, ez zuten hemen saltzen. Neurrira egin ziguten. Dena berria zen eta denbora asko eskatzen zuen.

Ahal genuenetan mendira joaten ginen, entrenatzera.

Janariaren kontuan, zer eraman, zer ez... hori ere erabaki egin beharko zen.

Andeetan hasita zaude. Edariak gatz mineralak edukitzeko, oinarritzko informazio bat bageneukan, baina ezberdina zen hori ere, altura ere bai. 'Barritak' oraindik hasi gabe zeuden. Nola-bait lortu genuen zenbait gauza eraman eta probatzeara.

Zer moduz prestatu zenuen alde horretatik espedizioa?

Ilusio eta gogo handiarekin joan ginen, lehenengo zortzi milakoa zen. Altuerako esperientziarik eza ere jasan genuen. Oinarritzko kanpamentuan hiru-lau egun egongo ginen. Eta hori gaur egun astakeria bat da. Gaur egun saiatzen zara ahalik eta denborarik gehiena oinarritzko kanpamentuan egoten, ondo jaten. Desgaste handikoa izan zen, espe-

rientziarik ezagatik. Paliza ikaragarria izan zen. Gailurretik jaitzitakoan, monoa kendu nuen eta hezur eta azal nengoen.

Baina aldi berean ilusio eta gogo handiarekin zozenez, gora egiten duzu. Teknikoki ez da mendi konplikatua, baina luzea egiten da. Beherakoan edu-

ki genuen desgaste horrekin, gogorra egin zen.

Teknologia berriek arrerakuntza handia egiten dute baina garai hartan, etxekoekiko harremana... nola egiten zen?

Telefono bidezko harremana, satelitea... ez naiz gogoratzen artean inork zeukanik. Izaten zen harreman

bakarra, Katmandura jaitzitakoan izaten zen.

Lehenengo telefonoa, 1997an Juanito Oiarzabalekin joan nintzenean, eraman genuen. Maletin bat zen, nahiko handia, bere antenarekin...

Gaur egun zer eramaten duzue?


Nik ez dut ezertxo ere era-



ONE MENDIZABAL
ILEAPAINDEGIA

Emakumezkoen nahiz
gizonezkoen ileapaindegia

Astelehen goizetan zabalik



943 18 04 92

Helbarrena, 24

ATAUN




AMEBI
Sagardotegia

Abenduaren 21 gauetik
urtarrilaren 2ra
oporrengatik itxita

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO



Ordiziako Tabernarien partetik



*Eguberri
zoriontsuak
quztioi!*



Urdaneta 27 20240 Ordizia Tel.: 943 88 00 23

OLANO
TABERNA



HERRIKOA TABERNA



URDIN
rock
musika



TAUR



Hidden Peak (8.068 m)



1995

Bi urte beranduago, Hidden Peak mendiari heldu zion Koke Lasak, Rafa Berasategi segurarrarekin, Txetxu Lete urnietarrarekin eta Luismi Lopez madrildarrarekin. 1995eko ekainaren 16an lortu zuten gailurra. "Oso mendi polita da. Oso gustukoa dut. Hasieran, behin 6.500 metrotik gora, 'couloir' batean sartzen zara eta gailurreraino, nahiko zuzen joaten da. Bide oso polita da".

maten. Azkeneko honetan, kolonbiar bat etortzeko zen eta berak bazeukala eta eramango zuela. Baina oso berandu iritsi zen eta telefonorik gabe geunden. Bi txekiar bazeuden eta haiengana joan eta bi-hiru aldiz deitu genuen.

2006. urtera arte, berriz zortzimilatara joan gabe egon naiz. Mendi urutiagoetan eta isolatuagoetan egon gara, baina orain arte ez dut erosi. Hemendik aurrera, beharbada, planteatzeko gaia izango da, asko merketu dira eta.

Arropatan, aldaketarik handiena noiz izan da?

Etengabeko aldaketa da. Erosi nuen lehenengo monoa mantentzen dut, lumazkoa, neurrira egindakoa. Kamiseta termikoak, galtzerdiak... urtetik urtera aldatzen dira. Arlo horretan asko aldatu da. Monoak, arindu egin dituzte.

Eskularruak gero eta beroagoak dira, lumazkoak, gore texak, oso arinak eta aldi berean beroak...

Baina beti dena berria ezin da erosi.

Botak?

Gu lehenengo espediziora joan ginenean, gaur egungo modeloak hasita zeuden, plastikoa pixka bat baztertu eta polaina eta dena osatuta zituen botak azaldu ziren. Botak dexente eboluzionatu dute, lehen astunagoak ziren eta geroz eta beroagoak egiten dituztela esaten

dute.

Argazki makinetan urte guzti hauetan ere aldaketak izan dira.

Ni egia esan, reflexerakin orain gutxira arte ibili naiz. Digitalarekin aurten hasi naiz; ni beti nire diapositibekin moldatu naiz. Baina ikusten dira besteen abantailak, lana egiteko momentuan. Nik hala ere, diaposi-

tiben oroitzapen onak dauzkat.

Sei espedizioetan, jende ezberdina izan duzu bide laguna, goierritarrak ere bai.

Gasherbrum IIra joan ginenean, berrogei urtetik gorako bi geunden, eta beste gehienak 29-35 urte bitartekoak. Oso giro onean ibili ginen.

Giro on horrek animatzen zaitu itzultzera. Gogoa ematen du errepikatzeko.

Lehenengo espedizioan zenbat urte zeneuzkan?

34 urte. Oso berandu da lehenengo zortzi milakoa egiteko. Gaur egun gazteago hasten dira, adibidez, iaz Shishara, Lazkaoko Anderekin joan nintzen eta 24 urte zituen.

Sanperio
kalea
ORDIZIA

Ogi berria
egun guztian
zehar

okindegia - kafetegia

Bertako produktu naturalak:
urdai azpikoa, saltxitxoia...
jogurtak, esnea...

Baserriko
produktuekin
egindako
gosariak

YARZABAL, S.L.

**Zurgindegi
mekanikoa**
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxe: **943 88 90 17**

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Kalitatezko 0-18 Hezkuntza Integrala leantza edua

Jangela Garraioa
Ordutegi zabala Trikitixa eskola
Musika eskola Abesbatza
Guraso eskola

Hizkuntza Eskola
Ingeles udalekuak
Trinity College London azterketak

Q
Euskadi
2 0 0 3

San Benito

Zorionak eta Urte Berri on!



Zorionak eta urte berri on!!

SASIETA MANKOMUNITATEAK eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue.

2008an ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

Gogoratu, urtero bezala, jaien ondoren gabonetako **PINUEN BILKETA** egingo dugula konposta bihurtzeko. *Traste zaharren egunean atera behar dira.*



www.sasieta.net



SASIETA
MANKOMUNITATEA

Manaslu (8.163 m)

Baina mendian, esperien- ziak balioko du, ezta?

Pentsatzen dut baietz. Nik arlo batzuetan dut abantaila, Anderrek adibidez beste batzuetan... Ander oso ibilita dago hemen, oso teknika ona dauka. Eta nik beste gauzatxo batzuk ditut.


Mendiak, zeren arabera aukeratu izan dituzue?

Nola sortzen den arabera. Lehenengoa esan dizuet nola sortu zen. Bigarrenean, G-IIra joateko asmoa geneukan. Kamisetak ere hala atera genituen. Ministeriora bidali genuen eta erantzuna iritsi zitzaigun, G-II okupatuta zegoela esanez. Hidden Peak edo G-I libre omen zegoen eta horrela joan ginen. Inongo informaziorik ez geneukan, euskaldunik igo gabe zegoen, joanda bai baina igo gabe. Salduta geunden. Hasi ginen informazioa lortzen... baina animo guztiarekin joan ginen.

Aukeraketa aldetik, Manaslu, Juanitok esan zidalako. G-IIra joateko, Pedro Garciak animatu ninduen. Broad Peakerakoan, Nanga Parbatera joan nahi genuen baina arazotxo txiki bat zegoen, lortzerik ez genuenez, Broad Peakera joan ginen. Eta Shisha bai, nik aukeratu nuen, bidea oso polita zela ikusita neukan eta. **Shisha izan omen da orain arte igo duzun mendirik politena.**

Hidden ere oso polita da. Guretzat zailegia ote zen

1997



1997ko urriaren 8an zapaldu zuen Manasluko gailurra, hiru gasteiztarrekin batera antolatutako espedizioan. Natxo Fernandez, Iñaki Kerejeta eta Juanito Oizartabal izan zituen mendi lagunak. "Mendi oso haizetsuaren oroitzapena daukat. Izugarrizko haizea eta hotza. Teknikoki, azken ertza dauka delikatu samarra, ez dira metro asko, baina kontuz ibili beharrekoa da. Gainerako bidean, glaziar bat bezala dago, dena zuloz beteta eta bidea topatzen ibili behar izaten da, nahiko aldrebesa da. Teknikoki bestela, ez da konplikatu. Kontuz ibili behar da elur-jauziekin, hasieran batez ere".

iruditzen zitzaigun, baina asko gozatu genuen. Bidea oso polita da.

Shisha agian politagoa. Behetik hasita, korredore bat dago, pareta handi bat, luzea...

Urte hauetan guztietan, entrenatzeko modua aldatu al da?

Cho Oyura joan ginenean, gure kasa aritu ginen. Korrika egin, mendira joan... inongo kontrolik gabe. Ez pulsometrorik... Ahal genuenean ahal genuena egiten genuen.

Hidden Peakeko espedizioan, aldatzen hasi ginen. Cho Oyuko proiektzio ba-

tzuk eman genituen eta behin Elduainen eman genuen. Ikusle bat inguratu zen, Ramon Elgoro, gimnasia irakaslea zen, eta nola entrenatzen genuen galdetu zigun. Nahi bagenuen entrenamentu plan bat egingo zigula esan zigun. Horrela hasi ginen entrenamendu

GERRIKO LIBURUDENDA



☎ 943 88 65 00

Faxa: 943 88 7971

gerrikoliburudenda@euskalnet.net

Elosegi 16 LAZKAO

**Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!**

Xikel

Eguberri on!

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

☎ 943 16 16 06 - 619 770 600
Urdaneta, 41

ORDIZIA



SEGURTASUNA

BERRIKUNTZA

FIDAGARRITASUNA

Ormaiztegi

China

Maghreb

Brasil

Mexico

India

Southern Africa



Gasherbrum II (8.035 m)

serioxeagoak egiten, pulso-metroarekin eta antolatuta.

Azken batean, horrelako entrenamenduekin, denbora aurrezten duzu eta suposatzen da, momentu horretan, sasoirik onenean iritsiko zarela.

Alde handia al dago Andeetatik zortzi milara?

Oso ezberdina izan da Andeetatik Cho Oyura. Antolamendua, funtzionatzeko era.... Fisikoki gehiago eskatzen du. Batez ere planteamendua asko aldatzen da. Andeetan, normalean, era alpinoan egiten duzu. Lehenengo mendian sufritzen duzu pixkatxo bat. Normalean ez da egiten, kanpamentua jarri, eta jaitsi oinarrizko kanpamentura. Andeetan, kanpamentu bat jaritzen duzu eta saiatu igotzen. Baina zortzi milakotatik, desnibel eta altuera handiagoak direnez, planteamendua aldatu egiten da: lehenengo kanpamentua jarri, justu behar duzuna igo, dena neurtuta; berriz jaitsi; bigarrenera igo, jaitsi... Planteamendu horrekin, pentsatu behar duzu ahalik eta denborarik gehiena, oinarrizko kanpamentuan egon behar duzula, 20-25 egun. Andeetan 5 egunetan egiten duzu mendi bat.

Fisikoki, 7.500 metrotik gora, altueraren eragina nabarmena da. Hankak motel-tzen hasten dira... prestakuntza fisikoa ere handiago eskatzen du.



2006

Ia hamar urteko etenaldiaren ondoren, 2006ko ekainaren 22an, Gasherbrum II gailurra zapaldu zuen Koke Lasak. Belaunaldi ezberdinetako mendizaleek osatu zuten espedizioa: Andoni Barandiaran (Lazkao), Pedro Garcia (Ordizia), Jose Juan (Arrasate), Juanra Madariaga (Bilbo), Andoni Ormazabal (Urretxu), Oier Plazaola (Zumarraga), Mikel Sasiain (Aretxabaleta), Iban Silvar (Arrasate), Francisco Monedero (Segovia), Jaume Gibernau (Bartzelona) eta Jose Mari Tey (Bartzelona). Garcia, Juan, Lasa, Ormazabal, Plazaola, Sasiain eta Monederok lortu zuen gailurra zapaltzea. "Ematen duena baino tentexeagoa da. Hau ere nahikoa erraza dela esaten dute baina badauka bere aldatpatxoa. Mendi polita da hau ere. Azken eguna luze samarra egiten da. Harritzko piramide bat da eta zeharkaldia egiten da barrenetik, gero ertzetik igotzeko. Bero izugarria egin zigun. Bidean monoa kendu eta hala igo ginen gora. Ez zait sekula gertatu: lehenengo zortzimilakona, goian, eskularrurik gabe egotea, lasai-lasai...".

Eta buruaren prestakuntza ere bai. Nora zoazen, zenbat denborarako, ez zoazela paseoa bat ematera,

ez zoazela hotelara... garbi izatea oso garrantzitsua da. Psikologikoki prestatzea oso garrantzitsua da.

Teknika non lantzen da?

Nahi izanez gero prestakuntza eskolak ematen dituzte. Baina nire kasuan, taldetxo

LOINAZARGI

Jose Lasa, 8-10 - LAZKAO
Tel.: 943 164 846 - 627 505 687



- Elektrizitate gaiak
- Argiteria
- Etxeetarako hornikuntzak
- Informatika-gaien salmenta eta konponketa
- Informatika hornikuntzak, sareak
- Telekomunikabideak



ZEGAMA
OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osiña, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viaña eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegui:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.



A
N
D
A
M
I
O
R
I
K

G
A
B
E
K
O

L
A
N
A
K



LAN BERTIKALAK

680 641 401

676 952 968

www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak
Teilatuak Kanaloiak Bajanteak Tximiniak Altuerako kimatzeak



Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.

Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)

Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661

e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com

web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Broad Peak (8.047 m)

batean sartu, eta esperimintatuz ikasi dut Pirinioetan. Hemen, Aizkorri berran ere bai. Sokarekin eta bi pioletekin askotan ibiltzen gara. Hor dauden kanaltxoetan mugitzen naiz. Badaude hainbat zirriztu, motzak, baina saltseatzeko onak. Oso urrutira joan gabe, Pirinioetan aukera asko dago, mugitzen ikasteko, aseguratzeko...

Zortzimilako mendi hauek, teknikoki, bide arruntetatik ez dira hain konplikatuak. Normalean, Pirinioetan askoz ere leku zailagoetan zabiltza. Baina horrek lasaitasuna ematen dizu, gero han lasaigo mugitzeko. Aizkorri berran, han baino, zirriztu zailagoak aurkitu izan ditut.

Oxigenoaren laguntzarik izaten al duzu?

Esaten dutenez, gero eta gehiago erabiltzen dute oxigenoa. Cho Oyura, ehuneko handi bat, oxigenoarekin joaten omen da. Gu joan ginenean, ni ez naiz gogoratzen inor oxigenoarekin ikusi izana, baina badi-rudi, oxigenoarekin jende asko dabilela. Badi-rudi lehenengo esperientzi bezala joaten direla Cho Oyura eta espedizio komertzialak gailurra ziurtatzera joaten direla. Hotza da mendia eta izozketa arazoak ekiditeko, oxigenoa jartzen dute. Oxigenoak beroa eta energia ematen omen du. Nik ez dut probatu baino esaten



2007

Etenaldiaren ondoren, berriz ere, gustoa hartu zion Koke Lasak Himalaia aldera joateari. 2007ko udaberrian, Broad Peakera joan zen zortzi mendizalek osatutako taldean. Iñaki Aldama (Amurrio), Javier Etxeberria (Berriz), Pedro Garcia (Ordizia), Juanra Madariaga (Bilbo), Andoni Urbistondo (Urdieta), Julen Zelaia (Berriz) eta Iban Ziriza (Gasteiz). Ekainaren 20an lortu zuten gailurra Koke Lasak, Etxeberriak, Garciak, Madariagak eta Zirizak.

“Barrenetik hasten zara igotzen eta hau ere nahiko mendi zuzena da, azken kanpamenturaino. Elurra egiten badu, bukaeran pixka bat etzan egiten denez, elur asko pilatzen da. Arazo handiena, elur asko baldin badago, arrastoa irekitzea izaten da. Leporaino iristea oso zaila izaten da. Goiko ertza oso luzea da. Bi gailur dauzka eta jende asko lehenengo gailurrera igotzen da eta gailurretik gailurrera ia kilometro bat dago, gora eta behera. Pasarte polita da, baina kontuz ibili beharreko lekua da”.

dute izugarritzko txispa ematen duela.

Eta Everesten zer esanik

ez. %90etik gora izango da oxigenoarekin doana.

Inoiz ikusi al duzu zure

burua arriskuan?

Arriskua beti dago. Baina nik beti esaten dut, etxetik

Kol. zkia.: 764

*Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on!*



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



*Zorionak eta
Urte Berri on!*

Tel.-faxes:
943 16 30 26

Goierri kalea, 10

ORDIZIA





Lukusin enparantza, 6

943 08 51 61

ORDIZIA

GABONETAKO MENU BEREZIAK

ENKARGUZ

Mariskoa

Txangurro betea
Marisko salpikoia
Marisko krema

Fritoak

Urdaiazpikoz betetako
esparragoak
Ontto pudina

Txangurroa

Porru eta ganbak
Onttoen Voulabena

Ohizko platerak eta zuk eskatutako beste edozer



**Eguberri zoriontsuak goierritar guztioi
Olaberriko udalaren izenean**



6

Shisha Pangma (8.027 m)

jaistean ere arriskuan egon naiz. Hori ere onartu egin behar dugu. Hemen gauza bera gertatzen da. Nire gorputza arrisku bizian ez dut ikusi. Manaslun izozketak izan nituen baina ni ez nintzen konturatu gailurretik jaitsi arte. Batzutan topatzen duzu pasarte delikatuagoren bat baina suposatzen da lagunekin lotuta zoazela...

Manaslutik Gasherbrum II bitartean, ia 10 urte egon zinen zortzimilakorik egin gabe. Zer dela eta?

Geldi ez naiz egon, mendi txikiagoetara joan naiz. Baina eskolan zuzendaritza taldean egon nintzen eta zaila zen edozein momentutan tartea hartzea. Beste gauza batzuk egin ditut, Ama Dablamera joan nintzen adibidez. Baina egia esan, "monoarekin" nengoan.

Eta aukera izan nuen Pedro Garcíarekin-eta G-II igotzen saiatzeko. Joatea erabaki nuen, baina zalan-tzekin. Urte asko ziren joan gabe eta ez nekien gorputza nola erantzungo ote zuen. Talde gaztetxo ere bazen, 30 urte inguruko sasoi beteko gazteak, ondo entrenatuta... Baina motibatuta, gogoarekin nengoan eta prestatzen hasi nintzen.

Eta oso gustura ibili ginenez, beste plan bat sortu zen. Horrela etorri dira Broad Peak eta Shisha Pangma.

Esperientzia hor dago eta nire gorputza gutxi go-



2007

2007a urte emankorra izan da Koke Lasarentzat, udazkenean, urriaren 8an, Shisha Pangma igotzea lortu baitzuen. Fernando Gonzalez (Kolonbia) eta Roberto Rojo (Laudio) izan zituen espedizio lagunak. Ormaiztegiarrak bakarrik lortu zuen gailurreraino igotzea. "Bide britainiarretik igo ginen gu. Bide oso zuzena da, tentea, aldapa jarraia. Oso-oso polita".

ra-behera, neurtuta daukat eta kontua da sasoi puntu bat hartzea ondo erantzuteko. Nik esaten dut, momentu bat iristen bada, ezin dudana, utzi egingo dut. Baina momentuan sasoi nago.

Dena den, Himalaian jende heldu asko mugitzen da. Harrituta gelditzen zara 50 urtetik gorako zenbat jende joaten den ikusita. Adinagatik beraz, lasai asko

joaten naiz. 30 urtetik behe-rako mendizale asko ez da ikusten.

Ondo pasatzen duzunean, eta gustura zaudenean, gozatzen duzunean, itzultzeko gogoia izaten da.

Everest al da helburua?

Ez ezazula pentsa, ez nau gehiegi motibatzen. 2001ean Everest tentatu nuen, oxigenorik gabe.

Sasoi onean nagoenez

eta mugitzeko aukera daukadanez, beste bi edo hiru urtetan jarraitzeko asmoa daukat. Ez dakit berriz saiatuko naizen Everestarekin, baina ez da helburua.

Hurrengo helburua zein duzu beraz?

Datorren urtean, Makalurekin saiatzeko asmoa daukagu, altura gehixeagorekin, edo Nanga Parbat, nahiko serioa da.



Iñauti
Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZIKI. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxes: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Goierritarra



GOIERRIKO

hitza



Abantailaz betetako elkarlana

Egunero

8 orrialdeko egunkaria

Hamabostean behin

28 orriko aldizkaria

Kalitatezko prentsa
euskaraz



Harpidedunen abantailak:

Egunero Hitza eta hamabostero Goierritarra etxean jasoko dituzu.

Zorion-agurretan deskontuak.

Zozketetan parte hartzeko aukera.

Harpidetza kobraketa kanpaina

Urteko kuotak:

 26 euro

 65 euro

 70 euro

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐  26 euro Egin ☒ bat aukeratutako kaxan ☐  65 euro

☐  70 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain

Harpidedunen arreta zenbakia: 902 82 02 01

‘Esperantza elikatu’

*Sahararako
janari bilketa
egingo du
aurten ere
Goierriko
Algamar
elkarteak*



Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan elikagaiak biltzen hasi dira saharararrrek Tindufen dauzkaten (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko. Elikagaiak urtarrilaren 31 bitartean

bilduko dituzte, eta elkartasun karabana otsailaren 16an abiatuko da Bilbotik Tinduferra. Goierriin, Algamar elkarteak (Sahararen Lagunen Elkartea) bideratuko du bilketa, eskoletan eta dendetan.


Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

*Diseinua Kalitatea
Berrikuntzak Garantia*

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

**AZURMENDI
HARATEGIA**



Victor Mendizabal, 2
☎ 943 88 47 65
ORDIZIA

San Inazio, 6
☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28
BEASAIN

Beste urte betez, Saharako errefuxiatuentzat elikagaiak biltzen hasiak dira Sahararen Lagunen elkarte ezberdinak. Goierriin, sortu berria den Algamar elkarteari dagokio bilketa eta antolakuntza. Urtarrilaren 31ra bitartean, hainbat ekimen egingo dituzte eskualdeko hainbat ikastetxeetan eta janari-dendetan. Gabon inguruko egunak aprobeztatu nahi dituzte elkartasunezko kanpaina honetarako. Honela, abenduaren erdialdetik aurretik, janaridendetan egingo dira bilketak, eta urtarrilean, Goierriko ikastetxe ezberdinetan egingo dute. Iaz, 400.000 tona elikagai bidali ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik Tindufeko kanpamenduetara. Aurtengoa egingo duten laugarren karabana izango da, eta 'Esperantza elikatu' leloa jarri diote.

Algamarrekoek emandako datuen arabera, duela bi urte nazioarteko erakundeek Tindufeko 176.000 errefuxiatuentzako laguntzak gutxitu egin zituzten. Horregatik, Mendabaldeko Sahararen alde lan egiten duten elkarteek karabana laguntzeko eskatu diete herritarrei.

Oinarritzko bost produktu

Arroza, atuna oliotan, azukrea, dilistak eta konpresak dira bilketa honetan bilduko dituzten produktuak. "Erraz galtzen ez diren pro-



Iazko janari bilketa.

Urtarrilaren 31ra bitartean, arroza, dilistak, atuna oliotan, azukrea eta konpresak bilduko dituzte.

duktuak eta aldi berean, indarra emango dietena. Emakumeentzat konpresak oso garrantzitsuak dira, han ez baitago eta ahal duten moduan moldatzen baitira", zehaztu dute Algamar elkarte-ko Amaia Eskuderok eta Esther Alegriak.

Dei berezia egin nahi izan dute aurtien Algamarrekoek, "urtetik urtera gutxiago biltzen da eta". Horrekin batera, "beraiei ere gero eta muga gehiago jartzen dizkiete, nahi duten guztia ezin dute jaso. Barkuak pleitatzeko ere nahiko diru ez dute askotan", azpimarratu dute Sahararen lagunek.

Goierriin bildutako materiala Donostiara eramango dute eta handik Valentziara. Itsasontziz lehenengo eta kamioiez gero, Tindufearaino. Hemendik bidalitako elikagaiak biltegietan pila-tzen dituzte. "Udaletxe bakoitzak, bere banaketa egiten du, pertsona bakoitzeko hainbeste. Oso kontrolatuta daukate banaketa", zehaztu dute. "Han, hemendik joaten denaz aparte, ez dago ezertxo ere ez. Baratzaren batzuk zergatik ez dituzten jartzen esaten da, baina han dena, hondarra eta harria da. Ura ere, oso gutxi daukate, oso mugatuta. Lurrazpian ura badagoela esaten dute baina ez daukate ateratzeko mekanismorik".

Aurtien material berezia ere bidaliko dute Goierritik. "Aurtien Idiazabalgo enpresa



GOENAGA



Eguberri zoriontsuak denoi !

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Egonaldia Saharan



Abenduaren lehenengo egunetan hainbat goierritar Sahararren errefuxiatuen kanpamenduan izan ziren. Udan bertako haurrak hartzen dituzte beraien familietan eta bi herrien eta familien arteko harremana sakondu egiten da. Ez dute aurten lehenengo aldia izan Sahara aldera joan direla. “Bidaia hauek, bertan bizi duten egoera bertatik bertara ezagutzeko balio izaten dute. Aurtengo kasuan gainera, Beasaingo udalak emandako dirula-

guntza aprobe txatu nahirik, proiektu- ren bat egiteko asmoa daukagu. Al- kateren batekin hitz egin eta zer be- har daukaten hitz egin nahi dugu, zein proiektu egin baloratzeko”, dio- te Algamar elkarte-ko beasaindarrek. Saharan zain izango zituzten. “Beti eramaten dugu eta zer bait”.

Horrelako bidaia bat egin ondo- ren, zein sentimendurekin itzultzen diren jakin nahi izan dugu. “Lehenen- go aldiz joan nintzenez, ez nuen es-

pero horrelako egoera bat ikustea, nik uste baino askoz ere okerrago daude”, dio Esther Alegriak.

Ildo honetatik, Algamar elkarteak, janari bilketaren garrantzia azpimarra- tu nahi izan du. “Bildutakoa Saharan eskertuko dute”. Eta horrekin batera, “datorren udari begira, goierritarrek animatu nahi genituzke umeren bat ekartzeko, beraiek ematen dutenaz gain, guk beraiei ematen dieguena asko baita”, gaineratu dute.

bat itxi da eta bertan zeuka- ten arropa eskaini ziguten Saharara bidali nahi izanez gero. Bidaltzeko asmoa daukagu”, argitu dute bea- saindarrek.

Egoera gogortzen


Urtetik urtera gainera, egoe- ra zailtzen ari zaiela diote Algamarrekoek. “Egoera

gogortzen ari zaie. Iaz izan ziren uholdeekin asko gal- du zuten. Adineko pertso- nen eta umeen artean ane- mia puntu hori azaltzen ha- si omen da. Garrantzitsua da jendea sentsibilizatu eta pixkatxo bat ematea, be- raiantzat asko baita. Bilte- giak hutsik daudela diote, garrantzitsua da parte har-

tzea”, dio Eskuderok. “Eta 32 urte horrela, bizi baldin- tzak oso gogorrek dira”, ze- hazu du dute.

Algamarrekoen esane- tan beraz, elkartasun ekin- tza hau inoiz baino garran- tziatsuagoa da. Ondorengo deia egin dute Goierriko Sahararren lagunek: “Be- raien artean hain bizirik da-

goen elkartasun horretatik, guk ere beharko genuke zertxobait ikasi. Elkartasuna beti adierazi dugu eta orain ere erakutsi beharra dauka- gu, bakoitzak ahal duen neurrian”, gaineratu du Ale- griak. “Beraiek ateak beti irekita dauzkazu eta dauka- ten onena emango dizue- te”.



SEGURAKO UDALA

SEGURAKO UDALAK

**Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on
opa dizkizue guztioi**

Goierritarra

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info

GOIERRIKO hitza info

943 16 00 56

goierrri@goierrikohitza.info

suquia

KALE NAGUSIA, 10

TEL.: 943 882 300 FAXA: 943 881 348

ORDIZIA 20240 GIPUZKOA


e-posta: suquia@suquiahogar.com

NAFARROA ETORBIDEA, 16

TEL.: 943 884 375 FAXA: 943 805 250

BEASAIN 20200 GIPUZKOA

altzariak - elektragailuak



Gure izatea kalitatea eta zerbitzua
Etxean bertan martxan jartzea dohainik

Indarren iragana eta geroa



Besaingo Indar enpresa, albiste da azkenaldian, enpresa handitzeko asmoak eta lanak direla eta. Gaur egun, 770 langile ditu eta 2009rako, ia mila langile izango dituela aurrikusten da. 1940. urtean sortu zen Indar eta urte guz-


tiotan, gora-behera handiak bizi izan ditu. Indarren historia ondo ezagutzen duten hiru lagun bildu ditugu mahaiaren bueltan: Joxe Felipe Aldasoro, Juan Mari Apolaza eta Jon Urdangarin. Indarren iraganaz eta orainaz aritu gara berriketan.



Oihalak
Haurdunaldiko arropa

Oriamendi 27

BEASAIN



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

1940. urtean sortu zuten Indar Ormazabal eta Larrañaga familiek. Gaur egun, Nafarroa etorbidea kaleko 41. inguru horretan, sortu zuten tailer txiki bat. Indar ezberdinetako motorrak eta alternadoreak egiten zituzten.

Indarren historia egiten lagundu duten hiru langileekin egin dugu hitzordua, lehen Indar lantokia zegoen lekutik oso gertu. Joxe Felipe Aldasoro zaldibiarrek 47 urte egin ditu Indarren eta Juan Mari Apaolaza segurarrak 44. Gaur egun erretiroa hartuta daude. Hirugarrena, Jon Urdangarin ataundarra da; 42 urte daramazki lanean eta oraindik ere hortxe dabil. Gaur egun, ELA sindikatuko ordezkaria da. Hiruek ere, etengabe handitzen ikusi dute Indar, "pusketaka-pusketaka. Erreka gainean zegoen pabiloian lan egiten genuen, burdino-laren gainean".

Indarren gainbehera ere bai, oso gertutik bizi izan zuten. Batez ere, Urdangarinnek eta Apaolazak, ordezkari sindikalak izan dira azkeneko urteetan; Urdangarin ELAtik eta Apaolaza LABetik. "Momenturik larrietan, klabeetariko bat, batasun sindikala izan zen. Eta ez guk esan dugulako. Oraingo jabeek ere onartzen dute garai hartan sindikatuen arteko batasunik eman izan balitz, zaila izango zela aurrera egitea. Beti, ELA eta LAB izan dira sindi-



"Indarrentzat eta herriarentzat izan da ona, Indar lekuz aldatzea. 770 langile ditu momentu honetan. Lekuz aldatu zenean, 225 bat izango ginen. Belaunaldi berria sartu da. Belaunaldi aldaketa, ikaragarria izan da, denbora gutxian gainera".

katu bakarrak, erdia eta erdia, gutxi gora-behera", adierazi dute Urdangarinnek eta Apaolazak.

Baserritik industriarako saltoa eman zuen belaunaldikoak dira hiruak ere. Eurria, eguzkia, elurra... bizikletan egiten zuten lanerako joan-etorria.

Eskualdeko herrietatik etorritako langileak elkartuko zineten Indarren.

Aldasoro: Legorretatik hasi eta Zegamara arte. Denak euskaldunak ginen. Ordizian bizi zen galiziar bat zen kanpokoia. Dena euskaraz hitz egiten zen.

Apaolaza: Orduan izango bagenitu gaur egun dauden euskara planak... Guk ez genuen inongo arazorik izango. Badaukat etxean egunkari zati bat gordeta, ez dakit zein egunkari izango zen, Arantxa Ormazabal, publizitatea euskaraz jarrita.

Langile onaren fama zuten baserrietatik etorritako gazteek.

Aldasoro: Hala genuen bai. Denetakoak egongo ginen, baina generalean ondo.

Apaolaza: Gaur egun eskolatik pasatzen dira gehienak behintzat, eta gu berriz, hogeita pare bat urterekin, zu-

zenean baserritik etorritakoak ginen. Esperientzia handiegirik gabeak.

Aldasoro: Ni hasi nintzenen, 8etatik 12etara egiten genuen, eta 14:00etatik 20:30era egiten nuen. Ni ordubietarako etortzen nintzen bueltan, joan-etorri 14 kilometro daude Zaldibiaraino eta bizikletaz egiten nuen. Bazkaltzera etxera joaten ginen. Ni hasi nintzen urtean, inori oporrik ez ziguten eman.

Urdangarin: Nagusi bat bagenuen, lanera, kaka eginda, pisa eginda eta janda etorri behar zela esaten zuena. Hau da, behin pabi-

**KONSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60
Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

 **izal** ☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

 **biok** kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

z e r b i t z u a k

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

lioira sartuz gero, burubela-
rri lanean aritu behar zela.

Joan-etorria aipatu dituzue baina lantokitik gertu, langileentzako etxebizitzak egin zituen Indarreko.

Aldasoro: 1957an egin ziren Indarreko etxeak. Garai batean enpresak obligatu egiten zituzten langileentzat etxeak egiteko.

Apaolaza: Guk, Indarreko hainbat langile elkartu, kooperatiba sortu eta hala egin genuen beste etxe bat, bigarren torrea. Laguntza handia eman zigun enpresak.

Aldasoro: %3ko interesarekin eman zuten dirua; orduan %16an-eta zeuden interesak.

Zein izan zen langilerik gehien izan zituen garaia?

Urdangarin: 1987an, 420 langile ginen; hortik hasi zen beherakada.

Apaolaza: Beherakada, izugarritzko abiaduran. Erdira jaitsi zen.

Beherakada gogorra izan go zen.

Urdangarin: 1987an hasi eta porrot batekin, 1995ean bukatu zen.

Apaolaza: Egoera traumatikoak sortzen dira horrelakoetan.

Aldasoro: Generazionala izan zen eh? Hasi zutenek, bukatu egin zuten. Lehengo zaharrak joan zirenetik, euren semeak gelditu ziren, baina behera joan zen. 2 Ormazabalek eta 3 Larraña-



Igartzako burdinola zabarraren gainean zegoen Indarreko tailer zati bat.

gak sortu zuten, 1940an. Txabola txiki bat zen. 1945erako, lehenengo pabilioia eginda zegoen. San Julian delako bat ere hasi zen.

Apaolaza: Nik ezagutzen ditudan inguruko enpresetan, bigarren belaunaldiak ez du funtzionatu.

Zeintzuk izan ziren gainbeheraren arrazoiak?

Aldasoro: Zuzendaritza berria sartzen hasi zen.

Urdangarin: Ateak ireki zirenean, konpetentzia etorri zen eta Indarrek ez zuen jakin behar bezala kokatzen.

Apaolaza: Inbertsio falta izan zen. Ez zuen eguneratzen jakin, merkatuak eskatzen zituen beharretara. Produktu ona egiten zen, baina garestia. Produktitzeko lineak zahar-zaharrak ziren eta beste enpresa batzuk jarrita zeuden dena seriean egiten, lana askoz ere merkeago egiten.

Aldasoro: Hari berezi hori adibidez, Usansolotik ekartzen genuen.

Urdangarin: Beherakada, oso azkarra izan zen. 1987an hasi eta 1992an, zorrez beteta zegoen, ixteko-tan.

Apaolaza: Baina ondo bideratu zen eta gustura egoteko moduan gaude.

Urdangarin: Pasatu ditugunak pasatuta, gaur egungo egoera ikusita, poztu egiten naiz, izugarri.

Gaur egun, alderantzizko kontuak datoz Indarretik. Handitu eta lanpostu gehiago sortuko dituela alegia. Horrelako albisteak zer moduz jasotzen dituzue?

Aldasoro: Nik ondo, aurrera egiten den bitartean, ondo. Goierrirako ona izango da.

Urdangarin: Orain beste historia batzuk daude.

Orain ere bi pusketa gehituko zaizkio. Bata, 10.000 m2ko pabilioia izango da eta beste pabilioi bat, I+D, ikerketarako erabiliko dute, 700 metrokoa.

Apaolaza: Nik neronek, Indar berrian lan egin nuen. 225 bat langile joango ginen eta orain 700dik gora daude. Agindutako inbertsioak betetzen ari dira. Gazteen-tzako lanpostuak jartzea oso ondo dago.

Aldasoro: Nik uste dut gainera, saiatu direla lehenengo politikari eusten. Gurasoen seme-alabak hartzen.

Urdangarin: Ingeletrik-ek egin duen aportazioak badauka zerikusia, aportazio teknologiko handia egin du. Bere garaian, Pakok, Joxek, Ramonek eta belaunaldi hark eman zuen bezala. Energia munduan sartu da Indar eta hortik etorri da arrakasta.

Apaolaza: Lehen teknologia berriak, urteak eta urteak irauten zuen; baina orain egunetik egunera, berrikuntza handiak etortzen dira. Lan berriak ere bai gainera.

Zuek, Indarren lanean hasi zinetenean, zertan lan egiten zenuten?

Aldasoro: Ordiziako beste tailer batean aritu nintzen aurretik eta tornero hasi nintzen. Gero lan istripua izan nuen eta delineazioa eginda neukanez, bulegora pasatu nintzen. Azkeneko urteetan salmentatan aritu nintzen.

HIERCOR,S.A.

BURDINAK, METALAK ETA DESGUAZEAK

Anduaga industrialdea, 5 blokea - 1. ezk.

20709 EZKIO-ITSASO

Tel.: 943 72 51 75

Biltegiko tel.: 943 88 17 07

Biltegiko faxa: 943 88 75 42



Juan Mari Apaolaza, Joxe Felipe Aldasoro eta Jon Urdangarin Igartza inguruan, Indar lantegia zegoen lekuaren aurrealdean. Atzerago lantegi berria banditzeko lanean ari diren eskabadorak ageri dira.

Apaolaza: Ni papertegiko sailean hasi nintzen. Fraile-etatik etorri nintzen. Atal hura kendu egin zen eta gero bonbatako sailera pasatu nintzen. Urte gehienak hor eman nituen. Azkenean, makina elektrikotatik bukatu nuen, muntaian. Lekuz aldatu ginenean ere, muntaian jarraitu nuen. Pirri eta bioi, lekualdatzea tokatu zitzaigun.

Urdangarin: Tailer mekanikoan hasi nintzen, gero tornutan eta muntaian bu-

katu nuen. Azkeneko lau-bost urteetan, liberatuta nago, ELAko arduradun bezala. Azkeneko 25 urteetako historia, gu bion eskuetatik pasatuko zen. 1987an aurrejubilazioekin hasi eta dena kate batean etorri zen. Jubilazioak, espedienteak...

Anekdotak polita badaukagu guk: Madrila joan gara eta Kuzco hotelean elkartu ginen akzionista batzuekin. Enpresa berriak, baldintza bezala jartzen ziren, akzioak %100ean kon-

trolatzea. Eta akzionisten artean bi sektore haserretuta zeuden. Talde batek konfiantza ematen zigun eta hor ibili ginen bitartekari lana egiten eta Kuzco hotelean akzionista batzuekin hotelean elkartu ginen eta parez pare Ruiz Mateos fama-tua eduki genuen.

Urte hauetan guztietan teknologia alorrean aurrerapen ugari eman dira.

Aldasoro: Salto handiago aazkeneko urteotan izan da.

Ni hasi nintzenean, 300 zaldiko motorrak handiak ziren. Gero hasi ginen 3.000koak eta abar egiten. Geroago nahiago zuten 300 zaldikorik ez egitea, txikiak zirelako. Ni lanean hasi nintzenean, artean esmerilen, soldadoreen, garabien... motorrak-eta egiten ziren.

1955ean, bonben patentea lortu zuen Indarrek. Jendeak ez zuen sinistu ere egiten, motorrak ur azpian nola lan egin zezakeen. Ez da bakarrik motorra ur az-

● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.

Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

pian sartu behar zela, baizik eta motorra urez bete behar zela. Baina hari berezia zen sekretua.

Urdangarin: Gaur egun eoliko enatalak %40 hartzen du. Energia berritzailea deritzon horretan, argi indar sortzaile hidraulikoaren atalean, ur saltoarekin lortzen den energia, lan handia egiten ari da. %80 a gainera esportatu egiten da Turkia- ra, Italiara... Untziolen sektorea ere hartzen du. Urpe- ragarriak egiten ditu, mun- duan ia enpresa bakarra da, dragentzako egiten ditugu. Eolikoak eta hidraulikoak hartzen du portzentajerik handiena. Untzietan atale- an, motorrak seriean fabri- katzekotan gara.

Gaur egun gehiena espor- tatu egiten dela esan du- zue. Zuek hasi zinetene- an, zein zenuten merka- tua?

Aldasoro: Holandarekin hasita egongo ginen igual, baina oso gutxi. Paperte- giak eta itsasontziak ziren gure merkatua. Barneko merkatua.

Urdangarin: Franco hiltze- ar zegoenean, hasi ziren pixka bat atek irekitzen, Europar Batasuna-eta.

Aldasoro: Lehenengo kri- sia orduan hasi zen, paper- gintzaren eta arrantzaren ondorioz.

Apaolaza: Bitxikeria bat badago: ejerzitoak eskatu omen zuen motorren bat egiteko, marina militarreko



Indar, indartsu

Beasaingo Indar enpresaren inguruan, lur mugimendu handia ikus daiteke azken asteotan. Horren arrazoia, Indarrek berak lurak erosi eta pabiloi berria egingo duela. Bata 10.000 m²koa eta bestea, 700 m²ko ingurukoa, ikerkuntzan oinarrituko den I+D pabiloia. 2008ko abuzturako lanak amaituta izatea aurreikusten du enpresak eta horrekin batera, 2009 bukaerarako 150 bat lanpostu gehiago sortzea ere bai. Gaur egun 770 langile ari dira Indarren eta milara iristea aurreikusten dira. Zabalkunde honekin, energia eolikoaren arloan sendotu nahi du. Beasaingo Udaletxeko Hirigintza zinegotzia den Aitor Aldasorok, pozik hartu du Indarren zabalkundearen albistea, "Beasaintzat eta Goierrirentzat albiste ona da", dio. Era horretan, Indar enpresak eta Beasaingo Udalak hitzarmena sinatuko dute zabalkundearen lanak egiteko.

itsasontziren baterako.

Aldasoro: Bitxikeria asko daude: Santanderko Minas de Redecinen, galerietan uholdeak izan zituzten eta Alemaniara-eta bonbak es- katu zituzten baina plazo luzeak jartzen zizkien. He- men lau egunean egin zen

bonba, dena utzita. Bada ar- gazkia, Ramon Ministroren batekin.

Urdangarin: Aita Santua- ren plakaren bat ere bage- nuen.

Apaolaza: Indarreko langi- leei bedeinkazioren bat ematen ote zien nago.

Emakumerik ba al zebi- len lanean?

Aldasoro: Gu hasterako la- bazebiltzan emakumeak.

Apaolaza: Bulegoetan asko eta txapatan ere bai. Garai hartan emakumeak, ezkon- tzen zirenean, lana uzten zuten.

ainarretxeberria

HANKARA

podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN

ZUGAZTIBI

AHOLKULARITZA

txekin

www.txekin.net

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble

ajentzia

9:30etik 19:00etara

EGUERDIZ IREKITA

Ni Gipuzkoa naiz.

Guztiok gara Gipuzkoa.

Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

2007/2011 Kudeaketa Plana



GIPUZKOA

zurekin, aurrera >>

Aspanovas: Haur minbizidunaren eta bere familiaren bizi kalitatea hobetzea helburu duen elkarte

Pirritx eta Porrotx pailazoe, abenduaren 30ean, 'Eskerrikasko' ikuskizun berria aurkeztuko dute Ordizian. Mari Motots haurrak minbizia du. Aspanovas Haur Minbizidunen Guraso elkartearen laguntzaz, haurren minbizia

gaia, naturaltasunez landu nahi izan dute pailazoe, gaixotasuna desdramatizatuz. Guk ere, naturaltasunez, Aspanovas elkartearen lana ezagutu nahi izan dugu, bertako kide diren Nekane Lekuonaren eta Paki Gonzalezen laguntzaz.



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko tel.: 616 698 288

Zubi-Erreka Industrialdea, 42
LAZKAO

toldosagustin.com
auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Jose Agustin Jauregi

San Inazio, 14 BEASAIN
☎ 943 889 390

Garagartza pl., 1 ORDIZIA
☎ 943 805 327

San Franzisko, 8 TOLOSA
☎ 943 650 239



Lurrindegia eta opari gaiak



ANZIZAR, S. A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea




Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**
www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxe.: 943 88 48



Garbiketa
Zerbitzu
Integrala

Enpresen mantentzea

Tel./Faxe: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL



kutxa

Medikuntzan, haur minbizia da estatuko biztanleriak gutxien ezagutzen duen arloetako bat. Haur minbiziaren errealitatea oso gogorra eta zaila da. Hala ere, errealitate horri indar eta balentria handiz aurre egiteak, gaixotasun horren tratamendua gaur egungo medikuntzak izan duen aurrerakuntza teraupetikorik arrakastatsuean bihurtzea posible egin du.

Hori guztia helburu hartuta, 1996an eratu zen Aspanovas (Haur Minbizidunen Guraso Elkarte) eta 1998an hasi zen lanean etxean minbizidun haurren bat zuten 4 familiaren ekimenez. Geroztik, elkartea hazten ari da bertan sartu diren familiek eginiko aholaginari eta elkarteari beraen laguntza era eskuzabalean eskaintzen dieten profesionalen lankidetzari esker. Aspanovsen helburu nagusia, "haur minbizidunaren eta bere familiaren bizi kalitatea hobetzea da. Gaixotasunaren diagnostikoan eta garapenean sortzen diren oztopoak gainditzea, dagozkien eskubideak defendatuz".

Aspanovas elkartea osatzen duten familiako bi kide, goierritarrak dira: Nekane Lekuona lazkaotarra eta Paki Gonzalez beasainarra. Biak ala biek, gertu-gertutik ezagutzen dituzte minbizia, bere ondorioak eta arazoak.



Paki Gonzalez eta Nekane Lekuona, Aspanovas elkarteak kideak.

Laguntzak

Lanak aurrera ateratzeko, dirulaguntzak behar-beharrezkoak ditu Aspanovas elkarteak; erakundeek zein herritarrena, "zoritarrez, hemen dirurik gabe ez baitago ezer lortzerik", azpimarratu dute. Diru-laguntzaren bat eman nahi duen edonorentzako, bi kontu korronte dituzte irekita. Kutxa: 2101 0102 11 0010730869. Euskadiko Kutxa: 3035 0197 19 1970017458.

Aspanovasek emandako datuen arabera, Goierriin 7 bat minbizia kasu daude. Medikuntza arloko aurrerapenei esker, gaur egun, haurren minbizia kasuen %75-80 sendatu egiten da. Hori jakina, minbizia motaren arabera dago. "Minbizia kasuaren aurrean, familiar-tekoek egiten duten galdera honakoa izaten da, Zergatik guri? Baina hor ez dago

erantzunkizunik. Faktore asko egon daitezke: genetikoak, ingurumena, elikadura, estresa... momentuan ez dago faktore bakar bat. Helduetan zerbait zehatzagoa esan liteke, baina haurretan ez; oraindik ez da arrazoirik ezagutzen", azpimarratu dute.

"Minbizia = heriotza dela uste dugu eta askotan gaitabua da. Edonori gerta da-

kioke, sexu, arraza, ideologia, klase sozialeko edozeini gerta dakioke. Tokatu arte, ez dugu pentsatzen guri gertatu dakiguketik. Eta jendeari askotan beldurra ematen dio guregana hurbiltzea. Oso informazio gutxi dago: minbizia=heriotza, kimioterapia tratamenduak, radioterapia...", adierazi dute Aspanovaseko elkarte-ko goierritarrek.

Aseguru konfedurria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: 943 88 86 20
Tfno. mugikorra: 609 49 14 41
Faxa: 943 88 91 18
LAZKAO

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu gustioi!

Aranburu

OINETAKOAK

☎ 943 880 127 Kale Nagusia,36 BEASAIN

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Donostiako Ospitala

Donostiako Ospitalean barkakako 5 logela berezi daude prestatuta minbizia duten 14 urte bitarteko haurrentzat. Gela babestuak dira. Aspanovasek emandako datuen arabera, "gehiago behar dira. Gero eta kasu gehiago daude eta. Kasu gehienak sendatu egiten dira. Kasu kronikoak dena den, gero eta gehiago dira". Aspanovasek beste eskari bat ere egiten du gai honekin lotuta: 18 urtera arte luzatzea pediatria arloa. "Pediatria gunea 14 urtekoentzako da baina 15 urtetik gorakoak pertsona helduekin jartzea... animikoki oso gogorra da eta egoera animikoa oso garrantzitsua da".

Minbizia duten haurrek, egonaldiak egiten dituzte ospitalean "baina etxera ere joaten dira, hobeto elikatu, familiarekin, lagunekin... egoteko. Horrek bi alde ditu: atera egin nahi duzu, aireatu eta pixka bat behintzat ahaztu egin nahi duzu; baina beldurrarekin zoaz, etxean zerbait gertatuz gero, zer egingo ote duzun beldurrez. Ospitalean, adituekin egon zara, babestuta; segurtasuna ematen du. Baina ohitu egiten zara", diote.

Kimioterapia tratamendua hartzen duenean, haurra defentsarik gabe gelditzen dela da arazoa. "Defentsarik ez badaukazu edo-



2006. urtean Oianguen egindako festa.

zer gauza harrapatu dezakezu. Gaixoak kontu izan behar du, katarrik ez hartzeko... defentsarik ez du eta. Haur batzuk, nahiz eta minbizia gaundituta eduki, tratamenduarekin jarraitu beharra daukate eta horrek defentsarik gabe uzten dute. Kasuren bat edo beste badago, neumoniagatik hil dela", zehaztu dute.

Etengabeko kontrolak egiten dizkiete minbizidun haurrei. "Tratamendua- ren ondorioak aztertzen ari dira haur hauengandik, ikasteko beste modurik ez dago eta. Helduetan gehiago dago ikertuta", azpimarratu dute goierritarrek.

Minbiziaz ari gara baina Aspanovasekoek, asmare-

kin ere konparatu nahi izan dute adibide bat jartzearen. "Haur asmatiko asko dago eta etengabeko kontrolak egin behar izaten zaizkie; eguneroko tratamenduak behar dituzte. Prozesu luze bat bezala hartu behar da eta minbizia ere bai. Tratamenduak bukatu egiten dira, krisiak ere gerta litezke, baina lasaitasunez hartu behar da. Ahal den neurrian, eguneroko bizitza egiten saiatzen zara".

Bizi kalitatea hobetuz

Haurraren bizi kalitatea hobetze aldera, ekintza ugari egiten dira minbizidun haurrekin, bai Ospitalean dauden bitartean, bai etxean daudenean ere, guztiak ere

boluntarioei esker. Tailerak, irteerak... "Haur minbizidunak asko hobetzen dira kura eta tratamenduen artean euren adinekoak diren ekintzak egiten jarraitzen badute: jolastu, eskolara joan, familiarekin, lagunekin egon...".

Haurrak gaixo dauden bitartean, eskola bereziak jasotzen dituzte, bai ospitalean, bai etxean. Hezkuntza Sailaren laguntzaz, irakasleak joaten zaizkie haurrei.

Haur bati minbizia duela diagnostikatzen diotenean, Donostiako Ospitaleko Pediatria arloak, Aspanovas elkartearen berri ematen dio familiari. Hurrengo pausoa, familiak hala nahi badi, Aspanovas elkartekoak



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



www.txekin.net



zuhaizki
Zurgindegia

Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa **20491 LEABURU**




familiarekin harremanetan jartzen dira, egoera berrira ahalik eta ondoen egokitzen saiatzeko. “Esperientziak trukatzeko ondo etorzen da. Elkartek adierazten dizu, ez zaudela bakarrik eta ez zaudela ahaztuta. Zure egoera berdinean jende gehiago dagoela”.

Psikologoa daukate elkartearen bertan. Aspanovasen eskakizunen artean dena den, psikologoa ospitalean bertan egotea dago, “diagnostikoa ematen den momentutik familiarekin eta haurarekin egotea. Gaur egun, psikiatra dago”, zehaztu dute.

Haurrari bizi kalitatea hobetzen laguntzarekin batera, gaixoaren zaintzaileak ere ondo zaintzen saiatzen da Aspanovas. “Gaixoaren zaintzaileari, egunero, bazkaria igotzen diogu kafetegitik. Zaintzaileak ere indartsu egon behar du”.

Aspanovasek beste helburu batzuk ere baditu: gaixotasunak sortzen dituen gastuak ahalik eta gehien gutxitzea; adingabeak eta bere familiak jasan dezaketen isolamendu soziala ekiditea; familiarteko bizitza soziala berreskuratzea. Familiak informatuta egotea da Aspanovasen beste helburu bat. “Gero eta aurrerapen mediku gehiago dago eta urtero jardunaldiak antolatzen ditugu, familiak informatzeko eta gizartea sensibilizatu dadin”.




Pirritx eta Porrotx, ‘Eskerrik asko’

Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizun berria aurkeztu dute: ‘Eskerrik asko’. Minbizia duen haurra, Mari Motots, da protagonista. Ipuin bat ere argitaratu dute, minbiziaren gaia landuz.

Duela zazpi hasi zen Euskadiko Aspanovasen eta Pirritx eta Porrotx pailazoen arteko harremana. Harrezkeroztik, urtero, Gabon garaian, haurrei bisita egiten diete ospitalean, haurrei irribarra sortarazten.

Nekane Lekuonak adierazi digunez, “Pirritx eta Porrotxei ipuin bat sortzeko proposamena egin genien. Baina behin, ospitaletik pasatu ziren eta haur minbizidun bat ezagutu zuten eta ikuskizuna sortzeko ideia bururatu zitzaien, gaia naturaltasunez tratatuz, gaixotasuna desdramatizatuz. Horixe da ‘Eskerrikasko’. Elkarteko haurrek parte hartu dute abestietan. Donostia ospitaleko Nagore pediatriak eta Virginia andereñoak ere parte hartu dute; CDan pertsonaia erreala dira. Rafael Guerrero pediatria ere bai eta ‘Maitet zaitut’ abestia eskaini diote, katalanez. Omenalditxo txiki bat da”.

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunak, elkarteari eta haur minbiziari buruzko informazioa zabaltzeko aprobeztatzen dituzte Aspanovaseko kideek. Abenduaren 30ean, arratsaldeko 4,30etan, Ordizian izango dira.




INSTALATZAILE OFIZIALA



laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN**

**PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**

☎ 943 02 73 58

Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 BEASAIN



Ander Argatz errugbilaria

Bi urte dira, Ander Argatz ordiziarak pilota utzi, eta errugbian jokatzen hasi zela. Ezezaguna zuen kirol honen arauak eta trikimailuak ikasi

eta dagoeneko lehenengo taldearekin jokatatu ditu minutu batzuk. Espainiako Selekzioaren kontzentrazio batean ere parte hartu du.

ttipi - ttapa umeen arropa denda

Chipie
Cake Walk
Levi's

Ikks
Jean Bourget
Clayeux

Pijamak: Arthur

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901

XEROX

ile-apaindegi mistoa solarium bertikala

Joan Iturralde, 5-7 (solairu artea) BEASAIN T 943 161 105

19 urte. 1,90 cm. 110 kilo. Ordiziarra. Errugbi jokalaria. Senior mailan jokatzen du. Harroina. Soldatzaile ikasketak egiten ari da.

Duela bi urtera arte, herriko pilota taldean aritzen zen. "11 urte aritu nintzen pilotan eta aspertu samar nengoen", adierazi du Ander Argazek. Pilotan, atzelari postuan aritzen zen. Pilota utzi eta errugbian hasi zen 17 urte zituela, "beste kirol batean proba egiteagatik. Eta oso gustura nago. Oso giro ona dago", gaineratu du ordiziarrek.

Lagunak han zebiltzalako aukeratu zuen errugbia. Gainerakoan, erabat kirol ezezaguna zen Argazentzat. "Partidurik ere sekula ikusi gabe nengoen. Lehenengo partidua, Ohorezko mailara igo zenean, Trevijanon jokatu zuenean, ikusi nuen", aitortu du.

Baina, probatu eta gustatu egin zaio. "Taldekoko joko da. Beste jokalariekin eta baloiarekin, kontaktu handia dagoen kirola da. Oso ezberdina da. Kanpo-



tik ikusita, asto samarrak garela ematen du baina ez da horrela", azpimarratu du.

Bilakaera ona

Adinez, berandu samar hasi bada ere, errugbian jokatzeke dohainik baduela ar-

gi dago. Dagoeneko, Ohorezko Mailan jokatzen duen taldearekin minutu batzuk jokatu ditu eta Espainiako selekzioaren, 19 urtez azpiko taldearekin, kontzentrazio batean ere izana da. "Ordiziako Ohorezko Mailako taldearekin bi partidutan aritu naiz, Valladoliden eta Madrilén. Baina orain pilier berria etorri da talde-
ra eta orain ezingo dut jokatu. Pilier ona etorri da gainera".

Seniorreko taldetik lehenengo mailara diferentzia handia dagoela dio ordiziarrek. "Meleetan asko nabaritzen da, izugarrizko aitona dira..."

Ordiziarrek aitortu duenez, ametsa, Lehenengo taldearekin, etxean, Trevijanon, minutu batzuk jokatzea du. "Egun horretan oso urduri egongo nitzateke", aitortu du.

Esperientzia gogorra

Espainiako selekzioarekin parte hartu izan du baina ez du oroitzapen onegirik. "Belgikara joan ginen, urriaren 24tik azaroaren 4ra. Ez nuen oso ondo pasatu. Lehenengo Madrila joan ginen, entrenatu, eta gero Belgikara joan ginen. Liejatik hamar kilometrora egon ginen, erresidentzia batean, futbol zelai bat on-

Pilota utzi eta errugbian hasi zen
Ander Argaz 17 urte zituela. Errugbi
kirola ez zuen ezagutzen baina gustua
hartu dio, giro ona aurkitu baitu.

ORKI
Opariak
Arropa osagarriak
Gabon zoriontsuak!
Nafarroa Etorbidea, 5
☎ 943 88 10 50
BEASAIN

Eguberri zoriontsuak

MAPFRE
ASEGURU TALDEA
Pello Barandiaran
☎ 943 16 13 61
Jose Lasa, 3 LAZKAO


LADA
Ssang Yong
ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA
N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



Kate motzean

Errugbiaz eta pilotaz gain, beste kirol bat:

Futbola gustatzen zait; tenisa ere bai.

Kirolari bat:

Realean zegoenean, Valeri Karpin gustatzen zitzaidan. Jan Ullrich txirrindularia ere bai.

Zaletasun bat:

Ehizera joatea, usotara eta birigarrotara.

Musika talde bat:

Negu Gorriak.

Liburu bat:

Ez naiz irakur zalea.

Janari bat:

Makarroiak, tomatearekin eta txorixo egosiarekin.

Edari bat:

Sagardoa.

Parrandarako leku bat:

Ordizia.

'Handia' egindakoan zer izan nahi duzu?

Soldadura ikasten ari naiz eta soldatzaile.

Urte Berriari zer eskatzen diozu?

2007an bezala jarraitzea.

doan zuela. Telebistarik ere ez geneukan. Goiz eta arratsalde, handik atera ere egin gabe. Partidua jokatu eta berriz aterpetxera, goiz eta arratsalde entrenatzera. Gogorra izan zen. Hori bai, taldekideekin oso ondo. Partidua galdu egin genuenez, zigor bezala, ez ziguten Lieja ikustera ere joaten", azpimarratu du Argai- zek.

Bi urtean horrelako bila- kaera izanda, errugbian le- henago hasi ez izanaren

penarik ba ote daukan gal- detu diogu ordiziarrarari. "Bai, beharbada bai. Lehe- nago hasi izan banintz, es- perientzia gehiago edukiko nukeen. Baina gustura na- go", dio.

Sasoi onean

Ordiziako senior mailako taldea sasoi onean dago Argai- zen esanetan. "Aur- ten mailaz igotzeko auke- ra izango dugu beharbada. Bigarrenak goaz. Bera-Ber- rari irabaziz gero, lehe-


nengo jarriko ginateke. Talde ona daukagu gaine- ra aurten".

Aurrealdean, harroina edo pilier postuan jokatzeko du Ander Argai- zek. "Mele- tetan sartu, palboko sake- tan altxatu eta aurreraino sartzea", horixe da bere la- na. Aurreraino askotan iris- ten den galdetu diogu, "bai, dezentetan", aitortu du.

Astean hirutan entrena- tzen dute, Altamirako zelai berrian. Entrenamendu go- gorrak egiten dituzte. "En-

trenamenduetan indarra as- ko lantzen da. Korrika, sal- toak, jokaldiak ikasi... pesa gutxi egiten dut. Bi urte da- ramazkit eta ea gehiago ikasten dudana".

Errugbitik bizi al liteke- en galdetuta, hona hemen Argai- zek erantzun diguna: "oso ona baldin bazara bai, baina oso jende gutxi bizi da". Ander Argai- zek aukera hori urruti ikusten du eta soldatzaile ikasten ari da Goierri Lanbide Eskolan, azkeneko urtean ari da.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



☎-Faxa: 943 88 95 76 Urdaneta, 41 ORDIZIA



ERREFORMAK

- ✖ Tximini eta ekonomiak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak

Sasieta Mankomunitatearen zerbitzu berria

Inprimagailuetako toner eta kartutxo bilketa



Sasieta Mankomunitateak bilketa berri bat hasiko du abenduan: inprimagailuetako toner eta kartutxoena hain zuzen ere. Aldi honetan gainera helburua kartutxoei bigarren aukera ematea izango da hauek berrerabiliz. Hemendik aurrera tinta-kartutxoa edo tonerra bukatzen denean zaborretara bota beharrean aukera izango dugu birziklatzeko.



Nora eraman behar dira birziklatzeko?

Edukiontzia berezi bat jarriko da leku publikoetan. Esate baterako udaletxe, liburutegi, kultur-etxe, KZ-gune edo kiroldegietan. Herriz herriko zerrenda zehatzagoa Sasietako webgunean izango da, www.sasieta.net.

Bigarren fase batean ikastetxe, zentru komertzial eta informatika dendetan ere jarriko da.

Nola birziklatzen dira kartutxo eta tonerrak?

Kartutxo kasuan lehen-dabizi barrutik ondo garbitu eta hustu egiten dira gelditu diren hondarrak kentzeko. Ondoren berriz ere tintaz betetzen dira. Tonerren kasuan elementu mekanikoak dituzte, beraz aurrekoaz gain pieza hauek ere aldatu egiten dira. Plastikozko karkasa berdina da baina

orriarekin kontaktuan dauden elementuak berritak dira.

Orduan berriz erabili ditzakegu?

Bai, hori da helburua. Kasu honetan birziklatzea esatea baina egokiagoa da berrerabiltzea. Adibidez Estatu Batuetan berrerabilitako toner eta kartutxoak orijinalak baino gehiago dira. Han arruntagoa da erabilitakoa erostea berria baino. Datu bezala esan erabiltzen denaren %60 birziklatua dela. Hemen European ere antzekoa gertatzen da, Alemanian esate baterako. Joera hau guregana ere ailegatuko da piskanaka.

Eta hemen aukera hori ba al dugu?

Oraingoz Beasainen ireki berria da horretan arituko den denda, BIRZIKLA hain zuzen ere. Beraiek egingo dute kartutxo eta tonerren bilketa, birziklapena eta berriz ere merkaturatzea. Hala ere asmoa da piskanaka beste herrietako informatika dendekin hitzegitea beraiek ere produktu hau eskaini dezaten.

Baina benetan kalitatezko produktua al da?

Bai noski, orijinalak eta berrerabilitakoak ez daukate desberdintasunik. Tinta kopuru berdina sartzen zaie eta lehen esan bezala desgastatu daitez-

keen piezak aldatu egiten dira. Aipatu produktua erabili dutenak jarraitu egiten dutela.

Eta zein abantaila ditu?

Ingurumenaren aldetik, hondakin gutxiago sortez gain, bere produktioan erabiltzen diren lehengaiak eta energia aurrezten dira. Bestalde herriarrentzat produktu hau merkeagoa da ez baita ordaintzen karkasa, batazbestez %40 merkeagoa da berrerabilia.

Nori dago zuzenduta?

Sasietaren bilketa batez ere herriarrei zuzendua dago. Dena den beste edonork ere erabil dezake, adibidez merkatariek edo bulegoek.



Enpresa laguntzailea:






*Sastarri Lan Taldeak
lehenengo DVDa
aurkeztu du*

**“Jaso,
galdu ez dadin.
Eta bildutakoa
erakutsi, ahaztu ez dadin”**

Otsailan, GOIERRITARRA aldizkariaren 315. alean aurreratu genuen bezala, Sastarri Lan Taldea, Ataungo ohitura eta usadio zaharrak biltzen ari da, asko galtzar daudenak, teknologia berrien la-

guntzarekin. Lehenengo ikus-entzunezkoari forma eman ondoren, abenduaren 22an, Ataungo liburu azokan, aurkeztuko dute Sastarrikoek. 10 eurotan jarriko dute salgai DVd-a.

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

IÑAKI ARIN
aseguruak



943 888 702

Oriako pasealekua, 20


BEASAIN

Lehenengo DVD honetan, aurkezpenarekin batera, 8 atal ezberdin daude: Troskaeta gazta, Praiskoene gazta, Gaztamix, Aigualde artilea, Olatza ardi-esnea, Etxeberrri belarretan, Etxeberrri Santaixabelak eta Urkillaga behiak. "Gure arbasoek urte luzetan egindako lanak merezi du bere omenaldia. Apala, eurak izan diren modukoa. Horregatik, apaltasun osoz eta prentzio handirik gabe, pixkanaka baina etenik gabe, gure nortasuna eta bizimodua mantentzen duten horiek omendu nahi ditu Sastarrrik. Herritar xumeak, apalak. Lan isila egin dutenak", diote Sastarri Lan Taldeko Txema Zubizarretak, Ramon Arzak eta Aitor Aldasorok. Gaztamix atal berezia ere badago, gaur egun nola egiten den gaztaia eta lehen nola egiten zen laburbiltzen da bertan..

Lau minutuko aurkezpenean Sastarriren lanaren aurkezpena egiten da. Hitzak Arkaitz Apalategik idatzi ditu eta hitzei ahotsa, Doltza Barandiaranek die.

XIX. mendeko Digitalaren abantailak ondo aprobetxatu dituzte Sastarrikoek eta nahi den atala aukeratzeko aukera dago. "Analogikotik digitalarekin saltoaren abantaila da, aukera tu ahal izatea, nahi dena nahi denean ikustea. Aurreko belaunaldiak egindakoa bildu eta belaunaldi berriei erakusteko. Euren arbasoen bizimodua nolakoa izan zen ulertzeko. Belaunaldi berriei ikusentzutekoen bidez, iraganaren testigantza bat uzteko", adierazi dute.

Lehenengo bilduma honetako, protagonista gehie-



Troskaetako gazta.



Praiskoene gazta.



Aigualde artilea.

nak Aiakoak badira ere, bilketa lana auzo guztietara zabaldu nahi dute Sastarriko Txema Zubizarretak, Ramon Arzak eta Aitor Aldasorok azaldu digutenez. "Bilduma bat da, herri baten bizitzeko eraren islada. Aurrea begirako proiektu bat da. Oraingo DVDean gehienak, Aiakoak azaltzen dira, baina gure asmoa da herri osoa

hartzea da, Udalarekin berearekin elkarlana irekita.

Atea, erdi irekia

Bildumaren karatulari edo itxurari dagokionean, "ate bat azaltzen da, pixka bat irekita, ate haunditik barrura sartu eta ikusten da barruan zer dagoen. Ataun izena Ate haunditik omen dator, zergaren bat ordain-

tzen zen leku bat zelako. Pixkatxo bat bakarrik dago irekita, kuriositatea sortzeko".

Aiako Bikario etxeko atea da. "Ate politago bat bazegoen bilatzea, zaharra goa... ate hau orain dela gutxikoa dela ikusten da. Baina guk azken batean, moztarrotu gabe, gaur egun egiten den bezala bildu du-



RENAULT
LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
 zabalik
 Eguneroko menua
 Karta
 Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Larrialdiko lana daukagu; materiala jasotzen.

gu, egunero lanean aritzen diren bezala”.

Lerro hauetatik aurrera-
tu genezakeenez, herriko bi
abeslariren kantu bat entze-
ko aukera ere izango da:
Maximo Aierberena eta
Dionisio Etxeberriarena. “Bi
ahotsetara abesten dute
kantu herrikoi bat; hunkiga-
ria da”, diote.

Bigarrena prestatzen

Bigarren alea prestatzen ari
dira Sastarrikoak. “Belar ka-
bleari buruzkoa izango da.
Kableari tratamendu berezia
emango diote, monografi-
koa egiteko asmoa daukate,
material ugari pilatuta bai-
taukate, baita kablearen
sortzailea izan zen Bixente
Eskisabelen semeari egin-
dako elkarriketa ere. Gai
horri buruzko animazioa
egiten ari gara”, aurreratu
dute ataundarrek.

Lehenengo lan honek
ate asko zabaldu dizkie Sas-
tarrikoei eta hainbat eta
hainbat ataundar prest azal-
du dira historia, ohitura, bi-
zipena pilaketa honetan
parte hartzeko. Larrialdiko
lana dutela azpimarratu du-
te. “Larrialdiko lana dauka-
gu: adineko jendea da eta
lehenbailehen egin behar
dugu bilketa. Grabaketari
garrantzia eman beharrean
gaude”, onartu dute.

Herriarena herriari

Sastarri Lan Taldearen as-
moa, herriarena dena he-
rriari itzultzea, dohainik
ematea, bazen ere, azkene-
an ezin izango baitu bere
helburua bete, “Ataungo
Udalak ez du proiektuan
parte hartu nahi izan, baina
beste behin ere, azken urte
honetan herritarrek izan du-
ten harrerak laguntza han-
dia eman digu. Jendea eto-



Olatza ardi-esnea.



Etxeberri belarretan.



Etxeberri Santaixabelak.



Urkillaga bebiak.

ri egin zaigu berak ere par-
te hartu nahi duela esanez.
Horrek esan nahi du, arazo-
ak badaudela baina arazo
horiek gainditu egin behar
ditugula nolabait”, diote
ataundarrek.

Arazoak arazo dena
den, Sastarri Lan Taldeak
bere proiektuarekin aurrera

jarraitzen du. “Baina bilketa
lan hau egiteko orain da
momentua. Bihar berandue-
gi izan daiteke. Horregatik,
apaltasunez eta herritarrek
elkarlanean egin beharreko
lana da. Historia denen ar-
tean egiten dugu, eta beha-
rrezkoak gara”, azpimarratu
dute.

Sastarrikoek aurreratu
dutenez, Ikastolen Elkar-
teko Txanela proiektuarekin
harremanetan dira, DVDe-
ko hainbat atal, beraien
ikasmaterialean txertatzeko.
“Aztertzen ari dira. Ikastola
askotatik eskatu digute da-
goeneko DVDa”, aurratu
dute.

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



**Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!**

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA

CAIXA CATALUNYA 

Urbialde plaza z/g BEASAIN
Tel.: 943 805 927 Faxa: 943 805 928

Zuretzat irtenbide gehiago.

Zure gustoko etxebizitza erosi, autoz aldatu, inbertsiorik onena egin, erretiroa bermatu, zure negozioa ireki... Caixa Catalunyan ez dizugu esango arazoak existitzen ez direnik. Soilik pertsona asko gara zuretzako irtenbideen bila. Zuretzat irtenbide gehiago lortuz.

Ordizia

Eguberrietako egitaraua

Ordiziako Udalak, kultur eta kirol elkarteekin elkarlanean antolatutako egitaraua duzue jarraian.

Abenduak 19, asteazkena:

10:30etan: Euskadiko X. Txistorra Txapelketa, Garagar-tza Plazan.

Abenduak 20, osteguna:

18:00etan: Jubilatuen Egoitzan Eguberrietako jaialdia Umore Ona Abesbatza, Antton Imazekin....

19:00etan: Goiztiri-AEK euskaltegiak antolatutako Gabonetako postal eta idazlan lehiaketako sari banaketa eta 'Gabonetako postalen Lehiaketa'-ko lan guztien erakusketa D'Elikatuz zentroan.

Abenduak 21, ostirala:

19:00etan: Musika Eskolako ikasleak aterako dira eta Eguberrietako doinu herrikoia joko dituzte.

21:00etan: Oroith eta Oroith-txiki abesbatzak, eskainitako Eguberri kontzertua elizan.

Abenduak 22, larunbata:

16:00etan: Altamiran, Futboleko Hiruko Tornea, Ordizia K.E.-Beasain-Lengokoak, gazte maila.

Abenduak 23, igandea:

18:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, 'Disko-Top'.

19:00etan: Santa Ana abesbatzak eskainitako Eguberri kontzertua, elizan.

Abenduak 24, astelehena:

18:00etan: Olentzero etorriko da dantzari eta trikitilariak lagun dituela.

Abenduak 25, asteartea:

10:30ean: Diana 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik.

11:00etan: Oroith Abesbatzak lagundutako Meza Nagusia, elizan.

13:00etan: Eguberrietako kontzertua 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik, Plaza Nagusian.

Abenduak 26, asteazkena: Azoka berezia

9:00etan: Kapoi, Antzar eta indioilarren XXI. Erakusketa Beti Alai Pilotalekuan; errezil sagar, fruitu, fruitu lehorren erakusketak Garagartza Plazan. Orein, pottoka, asto, bigantxa... erakusketa Beti Alai kanpoko pilotalekuan.

17:00etan: D'Elikatuz zentroan, gabon giroan Angel Unzurekin kafe-kontzertua.

18:00etan: Jubilatuenean, 'Aiton-amona eta bere biloben eguna'. 'Monda Lironda' pailazoak.

Abenduak 27, osteguna:

10:30etan: Majori Kiroldegian, Gabonetako IV. Saskibalo Lehiaketa. **17:30etan:** Finalak.

Abenduak 28, ostirala:

11:00etan: D'Elikatuz zentroan haur-jokoak Goierri ezagutuz (6-12 urte bitartekoentzat).

19:00etan: Beti Alai Pilotalekuan, Eguberrietako 24 orduko III. Saskibalo Txapelketaren hasiera.

Abenduak 29, larunbata:

10:00etan eta 16:00etan: Majori kiroldegiko igerileku estalian, 'Eguberrietako Foru Aldundia-Eusko Jaurlaritza Nazioarteko XXV. Sari nagusia, Ordizia 2007'.

17:30ean: Beti Alai Pilotalekuan, Saskibaloiko 3x3 I. Txapelketaren finala haur mailan.

18:00etan: Beti Alai Pilotalekuan, Eguberriko 24 orduko III. Saskibalo Txapelketaren finala.

18:00etan: Jubilatuen egoitzan, urte bukaerako jaialdia.

Abenduak 30, igandea:

16:30ean: 'Eskerrikasko' ikuskizun berria eskainiko du Pirritx eta Porrotx pailazoen Majori kiroldegian.

18:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, 'Disko-Top'.

Abenduak 31, astelehena:

17:00etan: XXXI. San Silbestre krosa-Jose Manuel Caballero V. memoriala. Proba herrikoia, gaztetxoetatik aurrerakoentzat 18:30ean hasiko da.

19:30ean: Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz, Beti Argi Banda eta Laguntasuna errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 1, asteartea:

18:00etatik 21:00etara: Beti-Alai Pilotalekuan, 'Disko-Top'.

Urtarrilak 2, asteazkena:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etatik 20:00etara: haur parkea Beti Alai Pilotalekuan.

Urtarrilak 3, osteguna:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara: haur parkea Plaza nagusian.

18:00etan: Herri Antzokian, 'Space Jam' filmaren emanaldia.

Urtarrilak 4, ostirala:

11:00etatik 13:30era 16:30etatik 20:00etara: Haur Parkea, Plaza Nagusian.

Urtarrilak 5, larunbata:

16:00etan: Herri Antzokian, haurrentzako filma.

19:00etan: Erregeen kabalgata.

Urtarrilak 6, igandea

10:30ean: Ordiziako Txistularien Diana.

11:00etan: Santa Ana abesbatzak lagundutako Meza Nagusia elizan.

18:00etan: Beti-Alai Pilotalekuan, "Disko-Top".



Ordizia

Andres Urdanetari buruzko erakusketa Barrenan

Andres Urdaneta itsasgizona jaio zeneko 500. urteurrenean Ordiziako seme haren bizitza, lana eta aurkikuntzak ezagutzera eman nahi ditu erakusketa zabalak. Enrique Forondak osatu du bilduma, panel, diaporama eta bestelako hainbat osagairekin. Jose Ramon de Miguel da erakusketaren komisarioa, eta Patxi Garmendia historialariak ere parte hartu du, besteren artean. Andres Urdanetaren bizitza eta lorpenak biltzen dituen erakusketa datorren urteko maiatzera arte egongo da ikusgai, Barrena kultur etxean barrena. Panelen eta diaporamen bidez testuinguru historikoa, bizitza eta garaiko pertsonaiak ikas daitezke.

Ordizia

'Irakurri eta oparitu' liburu gomendagarrien erakusketa

D'Elikatuz Interpretazio Zentroan, 'Irakurri eta Oparitu' liburu gomendagarrien erakusketa izango da urtarrilaren 4ra bitartean. Erakusketarekin batera, Ordiziako etxeetara, postaz edota eskola-umeen bitartez, liburu-gida banatu du Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak. Liburu-gidak biltzen dituen ehun liburu gomendagarriak izango dira D'Elikatuzen ikusgai eta kontsultagai izango direnak. Aurtengoa laugarren edizioa du 'Irakurri eta Oparitu'-k Ordizian.

Beasain

Juan Carlos Perezen kontzertua

Abenduaren 21ean, Usurbe Antzokian, gaueko 10,30etan, Juan Carlos Perez, Itoiz musika taldeko abeslariaren kontzertua izango da. 'Hiriko istorioak -JC Perez live' lana aurkeztuko du. Fernan Irazok (bateria), Chris Kase (tronpeta), Gonzalo Tejada (kontrabaxua), Andrzej Olejniczak (saxoa) eta Alberto Urretxo (tronboia) izango ditu talde lagunak. Sarrerak aldez aurretik egongo dira salgai, Usurbe antzokian bertan.




Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate


O



AGNES IRIGOYEN
PODOLOGOA

Elkargo kide zbk 230

Astelehenetik
ostiralera:
9:30etik
18:00etara



Tel.: 943 086 925
Sanperio kalea, 5 ORDIZIA

RPS: 38/07

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA:
Gai eta maila guztiak

INFORMATIKA:
Mekanografia, Word...

INGELERA:
Haurrak, gazteak, helduak

IKASKETA TEKNIKAK, TAILERRAK

UNIBERTSITATE MAILA:
Enpresaritza, Injeniaritza

Joan Iturralde, 5, Beasain
943 160 120
www.ikaskide.net

Lazkao

Eguberrietako ekintza sorta

Abenduak 18, asteartea:

19:00etan: 'Banka etikoa-fiare proiektua' hitzaldia, Juan Garibiren eskutik, Kultur etxeko areto nagusian.

Abenduak 19, asteazkena:

18:30ean: Lazkao Txiki Musika eskolaren Eguberri kontzertua, Kultur etxean.

Abenduak 20, osteguna:

17:30ean: 'Mundu berri. Nol' antzerkia, 7-12 urte bitarteko haurrentzat, Kultur etxeko areto nagusian.

21:00etan: Mintzalagun kantu-afaria, Kuxkuxtu Txaragarekin.

Abenduak 21, ostirala:

19:30ean: Kantaka eta Xanbe abesbatzen Eguberri kontzertua, San Migel parrokian.

Abenduak 23, igandea:

12:00etan: Gregoriano eta polifonia kontzertua, Benediktarren elizan.

Abenduak 25, asteartea:

13:00etan: Jaiotza biziduna, Lazkao Txiki Plazan.

Abenduak 27, osteguna:

Goiz osoan zehar, eskualdeko futbol eskolen topaketa Aritzi Haundi futbol zelaian.

17:00etan: 'Egizu lo, Tartalo' antzerkia, Kultur Etxean.

Abenduak 28, ostirala:

19:00etan: Igor Barrerosen disko aurkezpena, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Urtarrilak 13, igandea: Astotxo eguna:

10:00etan: Asto Diana.

11:00etan: Meza Nagusia, Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

12:00etan: IX. Asto erakusketa eta lehiaketa. Gurdi ibiltariak. Euskadi Plazan.

12:00etan: Egiptorako ihesaren kale antzezpena: 1652an sortutako festari ematen zaio bizia. Lazkao Txiki plaza eta inguruak.

Erakusketak:

● Abenduaren 13tik 22ra, Alboan fundazioaren eskutik, 'Errefuxiatu eta desplazatuak ere eskubideen alde' erakusketa eta bidezko merkataritzako produktu eta eskulanen salmenta.

● Urtarrilaren 6tik 13ra, 'Euskal musika tresnak eta astoen argazki zaharrak' erakusketa, Kultur Etxeko Erakusketa gelan.



Ordizia

Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berria

Goierriko Ikastolek antolatuta, Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde, Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Eskerrik asko' ikuskizun berria izango da ikusgai, abenduaren 30ean, arratsaldeko 4,30etan, Ordiziako Majori kiroldegian. Sarrerak aurrez jarriko dira salgai, Ordiziako, Lazkao eta Beasaingo ikastoletan, Ordiziako Barrenan eta Beasainen, Lazkaon, Zaldibian eta Seguran, ohiko lekuetan.



Idiazabal

Goierriko bertsolarien saioa, abenduaren 28an

Bertso Taldeak antolatuta, Goierriko bertsolarien saioa izango da, abenduaren 28an, 22:30ean, Guraso Elkartearen. Bertan ariko diren bertsolariak honakoak dira: Odei Lopez, Iban Urdangarin, Iker Zubeldia, Joxe Munduate, Iñaki Apalategi, Aitor Sarriegi eta Ekaitz Goikoetxea.

ENTZUMEN ZUZENKETAN LEHENENGO ERAKUNDEA, ORAIN, ZUGANDIK GERTUAGO



**Etor zaitez!
ENTZUMENAREN
AZTERKETA
DOHAIN!**

Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN

MULTIOPTICAS

www.multiopticasgipuzkoa.com

**MULTIOPTICAS-en
IDEIA
GABONETAN
OPARI EGITEKO**

OPARIA KONBINATU:

Zure betaurreko graduatuak*
erosita, eguzkiko betaurrekoak
opari egin ditzakezu erdi prezioan.

* montura + erreflexuaren kontrako kristal organikoak.

**Berritasun
eta marka
guztiak**

-50%
azken moda

* eskaintza baliagarria 2008ko urtarrilaren 7 arte



J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai 16
Tel. 943 76 15 75
BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01
IRUN

J.M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da Beasaingo Arrano tabernan. 943887447.

Lazkaoko taberna baterako zerbitzaria behar da. 943888308.

Mutil euskalduna behar da sagardotegi batean lan egiteko. 607365743.

Ordiziako Herrikoako zerbitzaria behar da. 943887598.

Ordizian neska bat behar da, etxeko lanak egin eta noiz-behinka haurrak zaintzeko, orduka. 943887679.

Ordiziako denda bat eramateko pertsona bat behar da. Deitu 8:00etatik 14:00etara. 943885500.

Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko pertsona bat behar da 9:00etatik 15:00etara. 616648255.

Neska behar da jatetxe baterako 943801799.

Pertsona bat behar da sagardotegi batean mahaia zerbitzatzeko. Urte osoan larunbat gauetan edo igande eguerdi batzuetan. 618930021.

eskaintzak

Ordizian bizi den emakumeak etxeko lanak egiten, adin-duak edo umeak zaintzen... lan egingo luke. 630839155.

Neska batek lan egingo luke orduka edo lanaldi osoz, garbitzen, zerbitzatzeko, umeak eta adinekoak zaintzen... 660966944.

Neskak umeak edo adinekoak zaintzen, garbitzen.... lan egingo luke, orduka. 648051991.

Neska eskaintzen da umeak edo adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Orduka edo egun osorako. 606722876.

Neska euskalduna eskaintzen da tabernan edo etxeko lanak egiteko. 677283129. Amaia.

Goierritarrako iragarki laburrak: hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 16 00 56

goierritarra@goierrikohitza.info / gh@goierrikohitza.info

ETXEBIZITZAK

errentan

Bikotea alokairuan dagoen pisu bila dabil. 687795557 - 617168510

salgai

Lazkao. 0 m2ko etxebizitza salgai. 689 99 76 74.

Beasain. Etxe baxua salgai. 33.000 euro. 686062963.

Beasain. Erdi berritutako apartamentua salgai, Nafarroa etorbidean, Geltoki inguruan. Egongela, sukalde hornitua, 3 logela, komuna, igogailua. Gas naturala, leihoraino. 656740305 - 625700907.

Beasain. Duplex ederra salgai. Bista paregabeak. Eraikuntza berria. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. Eraikuntza berriko 2 logelako pisua salgai. Erdigunean. Garajearekin. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Beasain. 4 logelako etxebizitza salgai oztopo arkitektonikorik gabe. Erdigunean. INMO F3. 943164936 - 629417171.

Benidorm. Apartamentu-estudioa salgai. Igerilekua, parkina. Hondartzatik 2 minutura. Itsasora bista ederrak. 626610384.

BESTELAKOAK

erosi

'Automobil' aldizkariko 5, 6, 36, 37, 38 zenbakiak erosiho nituzke. 943027280.

salgai

Haritzeko gela salgai. Ohea, armairua, 2 mahaitxo, komoda. 629767329.

'Zerossette' trikitixa salgai. Gutxi erabilia. 657719725.

Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615755762.

kontsultak

Tarot kontsultak. 943766214.

IBILGAILUAK

Volkswagen California salgai, 1991. urtekoa. 620256197.

GALDUTAKOAK

Betaurrekoak galdu dira, funda naranjarekin. 637008488.

Ordizian aurreko larunbat gauean (abenduak 8) goretex txamarra txuri-beltza erori zitzaidan balkoitik, Santa Maria eta Goitia kaleen artean (Martinez taberna parean) aurkitu baduzu deitu mesedez: 690260323.

LOKALAK

salgai

Lokala salgai, ileapaindegi, tailerra, biltegia... jartzeko aproposa. Prezio negoziagarria. 666062963.

GARAJEAK

salgai

Beasaingo erdigunean, garaje itxia salgai. Aukera paregabea. 645705287.

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es


ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala


Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko llantak
Filtroak, olioak,
engrasea
Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak
Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



 Arrondo
Zurezko egiturak



y tarimas interior · Jardinerías · Bancos · Tarimas exterior ·
 Jardinerías · Porches · Pérgolas · Teja-
 ras · Tarimas exterior · Parquets y tami-
 ras · Porches · Pérgolas · Tejados Par-
 quís exterior · Parquets y tarimas in-
 teriores · Tejados Parking · Ba-
 ños · Jardinerías



Arroundo

Bidegurutzea z/g
GABIRIA
Tel.: 943 88 59 50
Faxa: 943 88 69 25
arrondo@suelosarrondo.com
www.suelosarrondo.com



Otxoa d'Olaiza
the backstage

☎ 943 88 32 03
Zapatari kalea, 2A
BEASAIN

**Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on
opa dizuegu bezero eta goierritar guztioi**



Ordiziako errugbi taldea 1989 inguruan

GOIERRITARRAREN argazki artxiboan genuen argazki hau duela 18 urte ingurukoa da. Urte asko ez badira ere errugbia asko aldatu den adierazle.

Zutik ezkerretik eskuinera: Eusebio Ramirez, Jorge Ruiz, Axio Araña, Inazio Barcina, Pedro Txurruka, Jose Angel Dominguez, Eduardo Aranburu, Jon Txurruka, Aitor Araña, Juanan Alvarez, Bosko Mujika, Jose Luis de Castro eta Jon Korta

Pikotxean: Pablo, Txus, Alberto Calvo, Iñaki Arbina, Jon Ander Gorospe, Jon Ander Senar, Hilario Esnaola, Mikel de la Calle, Jose Mari Calvo eta Joxemi Zurutuza.

IKASTAROAK
KOADROAK
OPARIAK
OSAGARRIAK

MAIDART
Elosegi 22 - LAZKAO - 943 087 633

euler
bombas sumergibles

Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa

T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11

GERTU
Inmobiliaria

www.inmogertu.com

San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33




**zorionak
urteberri on**

Nafarroa etorbidea, 14 Beasain T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA *Salvatore Ferragamo* EXTĒ ROMEO GIGLI


Ε Ψ Μ Ξ



reflexione



SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Orain Olaberrian

Toyota kontzesionario berria!

EuskoAuto

Karobi industrialdea z/g
Olaberria
Tel.: 943 80 59 26



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es